**BIZKAIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA**
**FEDERACIÓN VIZCAÍNA DE FÚTBOL**

# AURKIBIDEA


**BIZKAIKO FUTBOL FEDERAZIOAREN DIZIPLINA-ARAUDIA**

**I. TITULUA – XEDAPEN OROKORRAK**

I. ATALA. ERABAKIEI BURUZKOA

**II. TITULUA – ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

I. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

**III. TITULUA – ARAU-HAUSTEAK ETA BERE ZIGORRAK. XEDAPEN OROKORRA**

- I. KAPITULUA. ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK
- II. KAPITULUA. ARAU-HAUSTE LARRIAK
- III. KAPITULUA. ARAU-HAUSTE ARINAK
- IV. KAPITULUA. LAGUNARTEKO PARTIDAK DIRELA ETA EGINDAKO ARAUHAUSTEEI BURUZKOA

**IV. TITULUA – ARETO FUTBOLAREN ZIGOR ARAUBIDEARI BURUZKOA**

**V. TITULUA – ZIGOR JARDUNBIDEARI BURUZKOA**

- I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK
- II. KAPITULUA. EZOHIKO PROZEDURA
- III. KAPITULUA. PROZEDURA ARRUNTA
- IV. KAPITULUA. JAKINARAZPENAK ETA ERREKURTSOAK

**XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**XEDAPEN IRAGANKORRA**

**XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

**AZKEN XEDAPENA**

**FEDERACIÓN VIZCAÍNA DE FÚTBOL**
**BIZKAIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA**

# DIZIPLINA ARAUDIA

## I TITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. ARTIKULUA Material Ezarpen Eremua

Futbolaren zigor-araubidea Euskal Herriko Kultura Fisiko eta Kirolari buruzko ekainaren 14ko 1998/14 Legean ohartarazita dago izaera orokorrez, eta zigortze-zuzenbidearen hatsapen nagusien arabera garatzen da Kirol Disziplinari buruzko Araudia araupetze nuen Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Sailaren urtarrilaren 10eko 1989/7 Dekretuan, gainerako garatze-erabakietan eta zigor-araubideari buruzko araudi honetan.

### 2. ARTIKULUA Bateragarritasuna

1. Kirol arloko zigor-araubidea erantzukizun zibil edo lege-erantzukizunetik bereizita dago, baita lan harremanen ondoriozko araubidetik ere, azken hau kasuan kasuko legeriari lotuko baitzaio.

2. Zigor-organo aginpidedunak, bere kabuz edo espedientegilearen eskariz, fisikaletzari jakinarazi beharko dio delitu edo hutsegite penal izaera izan dezaketen arau-hausteen berri.

Hala gertatzen denean, jardunbidea etetea erabakiko du, kasuan kasuko zer-nolakoen arabera, epaileak dagokion erabakia eman arte.

Jardunbidea etetea erabakiz gero, kautelazko neurriak har daitezke alde interesdun guztiei jakinarazitako agindu-agirien bitartez.

3. Kirolari buruzko urriaren 15eko 1990/10 Legean eta kirol ikuskizunetan indarkeria aurrezaintzeko garatze-erabakietan ohartarazitakoarekin bat etorriz, administraziobideko zigorrak ezartzeak ez du galaraziko, hala badagokio, eta bakoitzaren oinarria kotuan izanik, kirol erantzukizunak xahutzea, izaera bereko zigorrik ezin eman daitekeelarik.

Egintza batek administrazio-erantzukizuna eta kirol arloko erantzukizuna ekarriko balitu, federakundearen zigor-organoak bere esku lituzkeen aurrekinen berri emango dio dagokion agintariari, kirol arloko zigor-jardunbidea izapidetzearen kalterik gabe.

Kirol arloko zigor-organoak administrazio-erantzukizuna soilik ekar lezaketen egintzen berri izanez gero, bere esku dituen aurrekinak helaraziko dizkio, besterik gabe, agintari aginpidedunari.

**3. ARTIKULUA Ahalmena**

Zigortzeko ahalmena erabiltzea honako hauei dagokie, bakoitzaren aginpidearen esparruan:

a) Arbitroei

b) Kirol klub eta elkarteei

c) Euskal Herriko eta herrialdeko federakundeei.

d) Kirol Justiziarako Euskal Batzordeari

**4. ARTIKULUA Federakundearen Ahalmenak**

1. Bizkaiko futbol federakundeak joko-arauen eta hala beren estatutuetan nola araudi honetan ohartarazitako kirol portaerako arauen haustea zigortzeko ahalmena du.

2. Bizkaiko futbol federakundeak honako hauen gainean erabiltzen dute zigortzeko ahalmena: kluben zuzendaritza kide, futbolari eta teknikariak, klubak, arbitroak eta, orokorrean, beren eskumeneko eremuan erakundearen kide diren guztiak

3. BFF-FVFak, honen aurreko atalean aipatutako aginpideen esparruan, honako kasu hauetan erabiltzen dute zigortzeko ahalmena:

a) Soil-soilik herrialde maila edo izaera duten partidu edo lehiaketetan.
b) Partidu zein lehiaketa horietan Bizkaiko Futbol Federakundeak emandako federakunde-lizentzien jabe diren futbolariek soilik parte hartzen dutenean.
c) Kirol portaerako arauren bat hautsirik, errudun-ustekoa Bizkaiko Futbol Federakundeko klub, batzorde edo beste edozein organori loturik dagoenean.

4. BFF-FVFaren zigortzeko ahalmena haien zigor-organoek erabiliko dute, lehen auzialdian.

**5. ARTIKULUA BFF-FVF ko Ahalmenak**

1. Bizkaiko Futbol Federakundeak (BFF-FVF) honako hauen gainean erabiltzen du zigortzeko ahalmena: bere egitura organikoa osatzen duten pertsona guztiak, herrialdeko federakundeak, kirol klub eta elkarteak eta horien kirolari, teknikari eta zuzendaritzakideak; arbitrok eta, oro har, BFF-FVFri atxikirik egonik bizkaiko lurraldean egitekoak gauzatu edo karguak betetzen dituzten pertsona edo erakunde guztiak.

2. Esparru horretan, aurreko artikuluko 3. atalak biltzen ez dituen kasuetan erabiltzen dute beren ahalmena, lehen auzialdian araudi honetan ohartarazitako kasuetan.

3. BFF-FVFeko Batzordeen ebazpenak, EFF-FVFeko Apelazio Batzordearen aurrean errekurritu daitezke.

**6. ARTIKULUA Egiazkotasuna**

Zigortzeko ahalmenak gertakariak ikertzeko eta, hala badagokio, haien erantzuleei dagozkien zigorrak ezartzeko boterea ematen die bidezko aginpidedunei.

**7. ARTIKULUA Administrazio Ahalmena**

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, bere kabuz edo alde baten eskariz, kirol klub

eta elkarte, Euskal Herriko eta herrialdeko federakunde, eta Kirol Justiziarako Euskal Batzordera jo ahal izango du kirol disziplinaren arloko arau-hausteen ondorioz salaketak aurkezteko edo espedientea has dadin eskatzeko.

**8. ARTIKULUA Ezarpen Eremu Subjetibo Aktiboa**

Zigor-batzordeak eta Gorajotze-batzordea dira federakundeei dagokien zigortzeko ahalmena erabiltzeko organo aginpidedunak.

## 9. ARTIKULUA Lehiaketa Batzordea

1. Federakundeak antolatutako partidei edo lehiaketei dagokienez, diziplina-ahala BFF-FVFren Diziplina Batzordeak baliatuko du.

2. Gutxienez, Zuzenbideko tituludun hiru kidek edo kirol-esperientzia egiaztatua duten hiru kidek osatuko dute, eta BFF-FVFko Presidenteak izendatuko ditu.

3. Erabakiak gehiengoz hartzen ditu eta errekurtso egin ahal zaie Gorjaotze-batzordearen aurrean diziplina-edukia duten kasuetan, eta Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean, berriz, lehiaketa-kasuak eta BFF-FVFaren Zuzendaritza Batzordeak eskuordetutako beste edozein.

**10. ARTIKULUA Gorajotze Batzordea**

1. Zirgor Batzordea, BFF-FVF organu Diszplinarioen erabakien aurka doazen errekurtsoetaz arduratuko da.

2. Gutxienez hiru kidek osatzen dute, zuzenbidean lizentziatuak eta EFF-FVFko buruak izendatuak.

3. Erabakiak gehiengoz hartzen ditu eta errekurtso egin ahal zaie Kirol Justiziarako Euskal Batzordearen aurrean.

**11. ARTIKULUA Eskuduntzak**

Izaera honetakoak diren federazio organoen ahalmen diziplinarioen jardunetatik kanpo, BFF-FVFen Zuzendaritza Batzordeari honako eskuduntzak dagozkio, euren bidez edo eskuordetzen duten organoaren bidez:

a) Partiduak bertan behera utzi, aurreratu edo atzeratzea eta, hala badagokio, jokatzeko data berria ezartzea.

b) Partidua amaitutzat, etentzat edo ez-jokatutzat jotzeari buruzko erabakia hartzea, edozein gertakarik behar den moduan bukatzea eragotzi badu, eta, jarraitzea edo berriro jokatzea erabakiz gero, zelai neutralean egingo den ala ez erabakitzea eta, bi kau horietan, ikuslerik gabe jokatuko den ala jendeak sartzerik izango duen.

c) Bi taldeetako batean zazpi jokalari baino gutxiago geratu direlako partidua bertan behera utziz gero, jarraitu behar duen ala ez erabakitzea, egoera hori ezinbestez gertatu den ala kiroltasunaren aurkako egintzek eragin duten kontutan izanik. Zioa bi hirietako azkena izanez gero, klub errugabea garailetzat jo ahal du.

d) Partidu baten nulitatea eta errepikapena deklaratu, klubetako batek ez duenean bere lehen taldearekin parte hartu, beti hirugarrenei kalteak sortu ezkero.

e) Partiduak errepikatu, eten edo jarraitu behar diren balizko guztietan, horrek sortutako gastuen ordainketari buruzko erabakia hartzea, diruzko erantzukizun hori nori dagokion

zehazturik.

f) Egun berean jokatu beharreko partiduak hasteko ordu uniformea ezartzea, emaitzek sailkapen orokor eta behin-betikoan eragina izan ahal dutenean.

g) Bere kabuz edo alde interesdunen eskariz, partiduetarako federakunde-ordezkariak izendatzea.

h) Bere kabuz edo salaketa zein erreklamazioei erantzunez, azken sailkapena eta horrek eragindako egoerak (igotzeak, jaisteak, promozioak eta beste txapelketa batzuetan parte hartzeko eskubideak) ukitzen dituzten auzi guztiei buruzko erabakiak hartzea.

i) Amaierako sailkapenarekin zerikusirk ez duten arrazoiak direla eta edozein dibisiotan izandako hutsuneak nork bete behar dituen erabakitzea, araudi honek ohartarazitako kasuetan eta eran.

j) Oro har, bere eskumeneko lehiaketa ukitzen duen guztia.

**12. ARTIKULUA Eskuduntza Gatazkak**

Lurraldeko organoen artean sortutako aginpide-gatazka positibo zein negatiboak, haien guztien goi mailako organoak erabakiko ditu.

**13. ARTIKULUA Arau Hausteak**

1. Joko arauen hausteak jokatzen ari den bitartean jokoaren gisako nondik norakoa hautsi, eragotzi edo nahasten duten egintza edo ez-egiteak dira.

2. Kirol portaeraren arloko arau-hausteak aurreko atalean jaso ez diren eta kirol harremanen gisako nondik norakoa kaltetu edo gutxiesten duten egintzak dira.

**14. ARTIKULUA Printzipioak**

1. Kirol disziplinaren arloko arau-hausteetatik sortutako erantzukizuna zehaztean, federakundearen zigor-organoak zigortze-zuzenbidearen informazio hastapenei lotu behar zaizkie.

2. Ezin da inolako zigorrik ezarri gertatu aurretik arau-hauste gisa tipikikatuta ez dauden egintzak edo ez-egiteak direla eta. Halaber, ezin da huts egitea gertatu baino lehen emandako arauek jasotzen ez duten zentzagarririk ezarri.

3. Egintza bati ezin zaio zigor bat baino gehiago ezarri, araubide honek osagarritzat jotzen dituenak izan ezik eta bereziki aipatzen dituen kasuetan soilik.

4. Arau-hauslearen aldekoak badira, zigor-erabakiek atzera-indarra dute, argitaratzean erabateko erabakia emana bada ere.

5. Disziplina arloko zigorrak espedienteen ondorioz eta oinarridun ebazpenen bidez soilik ezarri ahal izango dira. Interesduneei, beti ere, entzutea eman eta haiek izendatutako pertsonaren laguntza bermutako zaie.

**15. ARTIKULUA Salbuespen baldintzak**

Erantzukizunaren inguruabar salbuesletzat honako hauek joko dira:

a) Araua eroaldian edo buru-nahaste iragankor egoeran hautsi izana, aldi edo egoera

horrek irauten duen bitartean arau-hauslea futbolean aritzeko ezgaitzat jotzako aukeraren kalterik gabe.

b) Araua legezko ekintza bat egitean hautsi izana, istripu hutsez, errurik gabe eta horretarako asmorik gabe.

c) Premia egoera, indar jarkiezina edo beldur menperaezina tartean izatea.

d) Betebeharra betez edo beharrezko obedientziaren ondorioz jardun izana.

**16. ARTIKULUA Baldintza Leungarriak**

Erantzukizunaren inguruabar aringarritzat honako hauek joko dira:

a) Aurreko artikuluan jasotakoak, kasu bakoitzean erantzukizunetik salbuesteko beharrezko diren betekizunak biltzen ez badira.

b) Arau-haustearen aurreko unean probokazio nahikoa gertatu izana.

c) Arau-hausleak, zigor-espedientea hasi dela jakin aurretik, berezko damua agertzea.

d) Ordura arte kirol bizialdian inolako zigorrik jaso ez izana.

Edozein kasutan erantzukizuna murrizteko arrazoia izango da klubentzat eta gainerako pertsona arduradunentzat, ordenamendu juridiko honetan edota indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta tolerantzia eza jarrerak arintzeko orduan jarrera debekatuen eragileak harrapatzeko laguntza ematea.

**17. ARTIKULUA Baldintza Iarrigarriak**

1. Erantzukizunaren inguruabar astungaritzat honako hauek joko dira:

a) Autoritate- edo konfiantza-abusuz jardutea.

b) Berrerortzea.

**2.** Berrerortzea dago falta-egileak, denboraldi berean eta erabateko erabakiz, astuntasun berbereko edo handiagoko arau-hauste bat zein astuntasun gutxiagoko bi edo gehiago direla eta zigorrik jaso badu.

3. Artikulu honetan jasotako arauak ez dira kargu-hartzez zigortzen diren faltei aplikatzekoak. Falta horiei dagokienez, izan litezkeen berrerortzeen metaketak partidua bertan behera uztea ekarriko du eta zigor hori betetakoan berori eragin duten kargu hatzeak berez eta besterik gabe indargabetu eta egozten duenetan.

Halaber, berrerortzea ez da aplikatuko arbitroak birritan kargu hartu eta, beraz, jokalaria zelaitik kanpora egozten duenetan ez eta 79. artikuluan ezarritako zigorra aplikatzearen ondoriozko kasuetan ere.

**18. ARTIKULUA Balndintza Aldagarrien Neurketa**

1. Inguruabat aringarriak edo astungarriak antzemateak zigorra dagokion neurrian mailakatzera behartzen du, 37. artikuluan ezarritako eskala orokorraren barruan, hurrenez hurren faltaren izaera oso astun, astun edo arinari aplikaturik.

Zigor-organoak zuzen irizten dion inguruabar aringarriren bat egotekotan, egindakoak

baino astuntasun gutxiago duten faltetarako eskala orokorrak ohartarazten dituen mugetaraino murriztu ahal izango da zigorra.

2. Aurreko atalean agindutakoa alde batera utzirik, zigor-organoek, ezarri beharreko zigorra zehazteko, faltan biltzen diren gainerako inguruabarrak balioetsi ahal ditu, hala nola: arau-haustearen ondorioak, egintzen izaera edo errudunduak kirol arloko entzukizun bereziak izatea. Horren guztiaren ondorioz, artikulu honetako 1. atalean bildutako arauak aplikatuko dira.

**19. ARTIKULUA Erantzunkizuna iraungitzea**

Kirol arloko zigor-erantzukizuna honako zio hauen ondorioz iraungitzen da:

a) Hiltzea.

b) Zigorra betetzea.

c) Faltak indarra galtzea.

d) Zigorrak indarra galtzea.

e) Kirolari edo erakundeko kide izateari uztea.

f) Indultua.

g) Amnistia.

h) Klubaren disoluzioa, berak egindako arau hausteen arabera.

Erakundeko kide-izaera nahita galtzen bada, erantzukizunaren iraungipenak geldiarazpen-ondorioak izango ditu soilik baldin eta izapidetzen ari den zigortzejardunbidea egin zaionak edo zigorra jaso duenak, edozein kirol jardueratan eta hiru urteko epearenbarruan, izaera hori berreskuratzen badu. Hala gertatuz gero, errantzukizunaren geldiarazpenaldia ez da zenbatuko indargaltzearen ondorioetarako.

**20. ARTIKULUA Arau hauste eta zigorren agindua.**

1. Arau-hausteek hiru urte, urtebete edo hilabeteren buruan galduko dute indarra, izaera oso astun, astun edo arinaren arabera. Indargaltze-epea araua hautsi eta biharamunean hasiko da zenbatzen.

Zigortze-jardunbidea hasteak indargaltze-epea etengo du, baina jardunbidea egin zaion norbanako edo erakundeari ezin lepora dakiokeen zioren bat dela medio jardunbidea geratzen bada, dagokion epea zenbatzen jarraituko da. Espedientearen izapidetzea berrasean indargaltzea etengo da berriro.

2. Zigorrek hiru urte, urtebete edo hilabeteren buruan galduko dute indarra, zigor-butako arau-haustearen izaera oso astun, astun edo arinaren arabera. Indargaltze-epea zigortzeko erabakia behin-betiko bihurtu eta biharamunean hasiko da zenbatzen, edo, epe hasita egonez gero, zigorraren betetzea urratzen den egunetik aurrera.

3. Aurreko bi ataletakoa araudi honetako 19. eta 35.6 artikuluek jasotzen dituzten balizkoetan ohartarazitakoaren kalterik gabe erabaki da.

**21. ARTIKULUA Barkamena eta amnistia**

Kirol disziplinaren arloko zigorren indultu edo amnistien zabaltasuna eta ondoriok, hala

badagokio, haiek eman dituzten erabakiek arautuko dituzte.

**22. ARTIKULUA Kalteen Erantzunkizun**

Falta bat egiteak iranduari ekonomi kalte edo galerak ekartzen badizkio, faltaren erantzuleak ordaintzeko erantzukizuna ere hartuko du bere gain.

**23. ARTIKULUA Zigorren Errolda**

BFF-FVFren zigor-organoen idazkaritzan, ezarritako zigorren lerrokategia eramango da, zehazki eta egunean, besteak beste ondorio hauetarako: erantzukizuna alda lezaketen gertakarien balizko antzematea, eta hala aau-hausteen nola zigorren iraungipenaren epe-mugen zenbaketa.

## 1. ATALA

## Erabakiei Buruzkoa

**24. ARTIKULUA Erabakia**

Eskumeneko organoaren ebazpenak amaiera jarri dio kirol diziplinazko espedienteari eta gehienez hamar lanegunen buruan eman beharko da, instruktoreak espedientea igotzen duen hurrengo egunetik aurrera.

**25. ARTIKULUA Erabakien Edukia**

Erabakiek zigortutako egintzaren tipifikazioa adierazi behar dute, eta horrekin batera:hautsitako araua aipatu, aurkez daitekeen errekurtso mota jakinarazi, eta zein organori zuzendu behar zaion eta horretarako dagoen epea argitu.

**26. ARTIKULUA Jakinarazi**

1. Kirol disziplina arloko jardunbidea egin zaiena ukitzen duen burubide edo ebazpen oro ahalik eta eperik laburrenean jakinaraziko zaie interesdunei. Horretarako gehienezko epea egintza eman den datatik aurrera zanbatutako hamar lanegunekoa izango da etajakinarazpenak erabakiaren testu osoa bildu behar du.

2. Kirol Diziplinazko arloan zigorrak ezartzen direnean, federazioan adskribatzeak ardura librearen onarpena inplikatuko du kirol diziplinazko subjektu guztien aldetik, zigorrek dagokien publizitatearekin kontatzeko orduan.

**27. ARTIKULUA Ageriko Komunikazioa**

**1.** Norberari jakinarazteaz gain, federakunde-justiziako organoek zigor-erabakiak jendaurrean jakinaraztea erabaki dezakete, norbanakoen ohore eta intimataterako eskubidea errespetatuz eta indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz.

**2.** Nolanahi ere, ebazpen horiek ez dute interesdunentzat indarrik izango norberari jakinarazi arte, kargu-hartzeen metaketaren berezko ondorio gisa (bai partidu desberdinetan bost kargu-hartze zein partidu batean bi metatzeagatik edo zuzenean egotzia izatagatik) eskabide-organoak erabakitako geldiarazpenak direnean izan ezik. Hori gertatuz gero nahikoa izango da federakundearen lokaletan jendaurrean jakinaraztea zigorrak eragin-indarra izan dezan; hori, noski, norberak bete beharraren kalterik gabe.

## II TITULOA

## ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

## I. ATALA

## XEDAPEN OROKORRAK

### 28. ARTIKULUA. Arau-hausteen sailkapena

Kirol arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak dira.

### 29. ARTIKULUA Burutzapen maila

1. Burutzapen hutsegitea eta ahalegina zigorgarriak dira.

2. Ahalegina dago errudunak arau-hausteari bidea ematen dionean eta emaitzarik ez dagoenean, eta norbere borondatezko uko egitea ez den arrazoiagatik ala istripuagatik gertatzen ez denean.

3. Ahalegina burutzapen gabeziaren kasuan aurreikusiarekiko zigor txikiagoarekin zigortuko da.

### 30. ARTIKULUA Zigor motak

1. Erregimen zigortzaile honen arabera ezarri ahal diren zigorrak, banaka ala batera, ondorengoak dira:
- Isun ala zigor ekonomikoa
- Ohartarazpen publikoa
- Ohartarazpena
- Partiduen araberako etenaldia
- Epe jakinaren araberako etenaldia
- Sailkapeneko puntuen murrizpena
- Partidua galtzea
- Kategoriaz jaistea
- Txapelketatik kanporatzea
- Kirol esparrua ixteko ohartarazpena
- Partiduak joko-eremu neutralean ospatzea
- Partiduak atea itxita ospatzea
- Kirol esparrua ixtea
- Gaitasun gabetzea
- Lizentzia kentzea

2. Partiduaren emaitza aurretiaz ezartzeko hipotesi irmoak izanik, prezioa, intimidazioa edota hitzarmen sinpleak direla medio, lerrokatze okerretan eta, orokorrean, kasu horietan guztietan zeinetan arau-hausteak partiduaren ordena larriki asaldatuko duen, kasu bakoitzean dagokion partiduaren emaitza aldatzeko, Arautegi honetan ezarritako moduaren eta mugen arabera.

### 31. ARTIKULUA Isun ala zigor ekonomikoak

1. Isunak, zigor nagusiaz gainera, hautazko izaera izango luke ordenamendu honetan aurreikusten diren hipotesietan.

Isunarekin loturiko zigorrak ezarri ahal izango dira esklusiboki hutsegitearen arduradunek euren zereginagatik ordainsariak jasotzen dituztenean.

2. Futbolariez, teknikariez ala laguntzaileez ari garenean isunak ordainduko ditu, kasu orotan, klubak zeinetan bere zerbitzuak emango dituzten.

3. Zuzendarien, futbolarien, entrenatzaileen eta laguntzaileen zigorrak barne hartuko ditu, dagokion kluberako, 7,50 € izango dira Ohorezko Mailako kluben kasuan, 6 € Lehentasunezko kategoriako kluben kasuan, 4,50 € Eskualdeko Lehen mailako kluben kasuan eta 3 € Eskualdeko Bigarren edo Hirugarren mailako kluben kasuan.

4. Etenaldiaren ala baliogabetzearen zigorrak 14-56 € bitarteko isuna dakar, hurrenez hurren, dagokion partidu ala hilabete bakoitzeko. Lurralde eremuko txapelketetan 12-43,50 € bitarteko zenbatekoen araberakoa izango da, hurrenez hurren, dagokion partidu ala hilabete bakoitzeko, Ohorezko Mailako kluben kasuan, 9-30 € Lehentasunezko kluben kasuan, 6-21 € Eskualdeko Lehen mailako kluben kasuan, eta 4,50-16,50 € Eskualdeko Bigarren edo Hirugarren mailako kluben kasuan.

5. Ordenamendu honetan aurreikusten diren hautazko isunak erdira murriztuko dira edota laurdenera, hala badagokio, hurrenez hurren Gazteak eta Femeninoa ala Kadetea eta beheragoko kategoriakoak. Dagokion murrizpena kalkulatzeko oinarria Ohorezko mailarako xedatutako zenbatekoa izango da.

### 32. ARTIKULUA Gaitasun eta lizentzia gabetzearen zigorra

Desgaitzea futbolaren kirol antolamenduko jarduera guztietarakoa da. Lizentzia kentzea, berriz, dagozkion jarduera berezietarako.

### 33. ARTIKULUA Kiroldegiaren itxiera

Kiroldegia ixten denean, partiduak beste zelai batean jokatuko dira. Zelai horrek kasuan kasuko lehiaketa motari dagozkion ezaugarriak bildu behar ditu eta ezin du egon itxitako kiroldegia kokatuta dagoen udal mugarte berean.

### 34. ARTIKULUA Epealdi mugaturako etendura

Epealdi mugaturako etendura galerazten du lerrokatzeak galarazten du futbol zelaian sartzea, aulkian eta aldagelen gunean egotea eta teknikarien kasuan, aurreko debekapenaz gain, aulkien inguruan egotearena eta edozein motatako aginduak ematea edo beste bideekin zelain parte hartzen dutenei.

Goiko debekuak edozein teknikari hutsegitean erori izanez gero, Diziplina Araudi honen 72. Artikuluan ezarritakoarekin zigortuko zaie.

Epealdi mugatu baterako etendura erabatekoa da partida mota guztietarako eta Joko denboraldiaren barruko hilabeteetan bete behar da, urtebetetik gorako epealdirako ezartzen denean izan ezik.

## 35. ARTIKULUA Partidako zigorren betearazpena

Partidako edo jardunaldi zigorrek araudi hau bete beharko dute:

1. Partidako/Jardunaldiko zigorra arau-hauste arin baten ondorioa denean, debekatuta dago jokalarien zerrendan sartzea, eta baita zelaian, aulkian eta aldageletan sartzea ere, eta zigorrak hartzen dituen beste guztiak, gertatutako ordenaren arabera, atzeratze-, errepikatze-, iraungitze-, edo beste zirkunstantzia batengatik txapelketaren hasieran ezarritako egutegia aldatu bada ere, arau-haustea eman den txapelketa bereko partidetan. Txapelketa berdinean dauden kategoria eta maila bereko partidak, sustapeneko eta mantentzeko txapelketak barne, baleude, eta bigarren fasekoak.

Zigorra teknikari bati ezartzen bazaio, lehen adierazitako debekuez aparte beste debeku hauek ezarriko zaizkio: aulkitik gertu egotea eta edozein motako jarraibideak ematea, edozein bitarteko erabilita, partidako jokalariei.

Goiko debekuak edozein teknikari hutsegitean erori izanez gero, Diziplina Araudi honen 72. Artikuluan ezarritakoarekin zigortuko zaie.

2. Partidako/Jardunaldiko zigorra arau-hauste larri edo oso larri baten ondorioa denean, debekatuta dago jokalarien zerrendan sartzea, eta baita zelaian, aulkian eta aldageletan sartzea ere, eta zigorrak hartzen dituen beste guztiak, gertatutako ordenaren arabera, atzeratze-, errepikatze-, iraungitze-, edo beste zirkunstantzia batengatik txapelketaren hasieran ezarritako egutegia aldatu bada ere, arau-haustea eman den txapelketa bereko partidetan.

Zigorra teknikari bati ezartzen bazaio, lehen adierazitako debekuez aparte beste debeku hauek ezarriko zaizkio: aulkitik gertu egotea eta jarraibideak ematea, edozein bitarteko erabilita, partidako jokalariei.

3. Futbolariak nagusiaren kateko edo klub babeslearen ekipo batenz errendetan sar badaitezke, zigortutako futbolariak ezingo du ekipo edo klub horietako batean parte hartu, partidako/jardunaldiko zigorra bete arte, arau-haustea egindako kategorian.

4. Aurreko atalean ezarritakoa RFEF Kopan , lurralde fasean, Euskal Kopa eta Errege Kopako sailkapen fasea ezberdinei dagokionean zigorren betebeharra, ez de betebeharko, hauek gune itxia bait dira eta bertan sortutako zigorran beteko dira soilik, kontutan izanik kanpo geratzen direla arbitroei eginiko minak.

5. Partidak arbitroaren edo kirol agintariren baten aurkako erasoaren ondorioz etenez gero, partida ez-ofizialietan esku hartzeko ere desgaituko du taldea, baina ez da betetze-ondoreetako zenbatetsiko.

6. Txapelketa bat amaitu denean, edo kluba kanporatu eta partidaren bat jokatu gabe geratu bada, zigorra hurrengo denboraldiko lehen partidan beteko da; artikulu honen lehenengo eta bigarren puntuetako irizpidea jarraituz, zigortutakoa kategoria, maila edo multzoz kontuan hartu gabe.

7. Lurralde-eremuko txapelketa-markoan egindako arau-hausteengatik zigortuak izan diren futbolariek ezingo dute autonomia-eremuko lehiaketa ofizialetako partidetan parte hartu, ezarritako zigorra bete arte.

**36. ARTIKULUA Lehiaketatik baztertzea**

Txapelketa batean, ez agertze bikoitzagatik salbuetsitako kluba edo txapelketa bera uzten duena, bertako partaidetzat joko da eta azkeneko sailkapenari begira, ez du besteen alde ezta kontra ere, punturik lortuko. Halaber, sailkapenaren azken tokian izango da, punturik gabe, arauz ezarritako jaitsiera postuetarako kontuan hartuz.

## III TITULOA

## ARAU-HAUSTEAK ETA BERE ZIGORRAK

### XEDAPEN OROKORRA

## I. KAPITULUA

## ARAU HAUSTE OSO LARRIAK

### 37. ARTIKULUA. Nagusikeria

Nagusikeria ez da onartzen; 300-3.000 € bitarteko isunarekin eta ondorengo zigorrekin punituko da:

- Federazio organizazioan karguak betetzeko baliogabetzea, edota lizentzia kentzea, bi eta bost urte bitarteko eperako.
- Lizentzia kentzea, behin-betiko; zigor hori salbuespen modura soilik ezarriko da, arau-hauste larriak errepikatzean.
- Ohartarazpen publikoa.

### 38. ARTIKULUA. Ezarritako zigorra haustea

1. Ezarritako zigorra ala kautelazko neurri betearazleak hausten dituztenak 300-3.000 € bitarteko zigorrarekin punituko dira:

- Partidua galtzean, arautegi honetako 47. artikuluan deskribatu terminoen arabera.
- Sailkapeneko hiru puntu kentzea.
- Kategoriaz jaistea.
- Partiduak joko-eremu neutralean ospatzea.
- Kirol-eremua ixtea, lau partidu eta denboraldi osoa bitartean.
- Federazio organizazioko karguak betetzeko baliogabetzea, edota lizentzia kentzea, bi eta bost urte bitarteko eperako.
- Lizentzia kentzea, behin-betiko, zigor hori salbuespen modura soilik ezarriko da, arau-hauste oso larriak errepikatzean.

2. Kautelazko zigor ala neurri betearazleak hausten dutenak zuzendariak direnean, arau-hauste oso larriaren autore bezala punituko dira, aipatu isunaren ezarpena ahaztu gabe, ondorengo zigorretako batekin :

- Ohartarazpen publikoa
- Bi eta bost urte bitarteko eperako baliogabetzea.

3. Ezarritako isun ala zigor ekonomikoak ordaintzen ez direnean, zigorra hautsi dela kontsideratuko da.

### 39. ARTIKULUA Bizkaiko selekzioetara ez etortzea

Euskadiko ala Lurralde Selekzioen deialdiak justifikatu gabe betetzen ez dituzten ala errefusatzen dituzten futbolariak, entrenamenduak, kontzentrazioak edota partiduen ala txapelketen ospakizunak eragiten direnean, 300-1.200 € bitarteko isunarekin punituko dira, ondorengo zigorretako batekin.

- Federazio organizazioan karguak betetzeko baliogabetzea, edota lizentzia

kentzea, bi eta bost urte bitarteko eperako.

- Lizentzia kentzea, behin-betiko; zigor hori salbuespen modura soilik ezarriko da, arau-hauste larriak errepikatzean.

**40. ARTIKULUA Kirol orden egokiaren aurkako jarrerak**

1. Oro har, kirol orden egokiaren aurkako jarrerak, indarkeria, arrazakeria, xenofobia edota tolerantzia eza erakusten dutenak, oso larriak direnean, 600-3.000 € bitarteko isunarekin eta ondorengo zigorrekin punituko dira:

- Partidua galtzean, arautegi honetako 47. artikuluan deskribatu terminoen arabera.
- Sailkapeneko hiru puntu kentzea.
- Kategoriaz jaistea.
- Partiduak joko-eremu neutralean ospatzea.
- Kirol-eremua ixtea, lau partidu eta denboraldi osoa bitartean.
- Federazio organizazioko karguak betetzeko baliogabetzea edota lizentzia kentzea, bi eta bost urte bitarteko eperako.
- Lizentzia kentzea, behin-betiko, zigor hori salbuespen modura soilik ezarriko da, arau-hauste oso larriak errepikatzean

2. Kautelazko zigor ala neurri betearazleak hausten dutenak zuzendariak direnean, arau-hauste oso larriaren autore bezala punituko dira, aipatu isunaren ezarpena ahaztu gabe, ondorengo zigorretako batekin :

- Ohartarazpen publikoa
- Bi eta bost urte bitarteko eperako baliogabetzea.

**41. ARTIKULUA Indarkeria, arrazakeria, xenofobia, eta tolerantzia eza erakusten duten futboleko ekintzak eta jarrerak**

1. Futbolean indarkeria eragiten duten ekintzak ala jarrerak dira :

a) Kirol esparruetako liskarretan, eztabaidan, borrokan ala nahaste publikotan parte hartzea.

b) Kirol instalaziotan indarkeria, arrazakeria, xenofobia edota tolerantzia eza eragiten duten ala partiduan parte hartzen duen edonorengana mespretxua azaltzeko pankartak, ikurrak, ezaugarriak edota legendak erakustea.

c) Indarkeria eragiten duten edota partiduan parte hartzen duten pertsonengana mespretxua erakusten duten kantikak erabiltzea.

d) Joko-eremuaren inbasioa, indarkeria, arrazakeria, xenofobia, bereizkeria ala tolerantzia eza erakusten duten jarduerak ala adierazpenak direla medio.

e) Partidu baten inguruko adierazpen ezberdinak, mehatxuak ala indarkeriaren jarrerak erakutsiko dutenak, kontrako klima edota kiroltasunaren aurkakoa eragingo dutenak.

f) Edonolako baliabide eskuragarri jartzea, indarkeriazko pertsonen ala taldeen jarduera sostengatzeko.

2. Halaber arrazakeria, xenofobia edota tolerantzia eza erakusten duten jarduerak dira futbolean:

a) Adierazpenak zeinen arabera pertsona ala talde batek norbait mehatxatu, irainduko duen, bere arraza, etnia, geografikoa ala soziala, edota bere erlijioa, sinesmenak, minusbaliotasuna, adina ala sexu orientabidea dela-eta.

b) Erasoa suposatzen duten jarduerak, hau da, arraza, etnia, geografikoa ala soziala, hala nola erlijioa, sinesmenak, gaitasuna, adina ala sexu orientabidea oinarri izango dutenak.

c) Kirol instalaziotan eginiko adierazpenak, keinu ala irainak, edozein pertsonarentzat ageriko tratu iraingarria suposatuko dutenak bere jatorrizko arraza, etnia, geografikoa ala soziala, hala nola erlijioa, sinesmenak, gaitasuna, adina, sexua ala sexu orientabidea dela eta; baita gorrotoa eragiten duten ala pertsonen eskubideak, askatasuna eta balioak larriki kaltetuko dutenak ere.

d) Kirol instalaziotan kantikak, soinu ala kontsignak egitea, hala nola pankartak, banderak edota beste hainbat ikur erabiltzea mezu iraingarriak dakartzatenak, jatorrizko arraza, etnia, geografikoa ala soziala, edota erlijioa, sinesmenak, minusbaliotasuna, adina, sexua ala sexu orientabidea dela eta; baita gorrotoa eragiten duten ala pertsonen eskubideak eta askatasuna larriki kaltetuko dutenak ere.

e) Artikulu honen aurreko ataletan arrazakeria, xenofobia ala tolerantzia eza bultzatuko duten jarduerak sostengatzen duen edonolako baliabide.

f) Herrialdeek, elkarteek ala erakundeek antolatu edonolako txapelketan eginiko parte hartzea, arrazakeria, xenofobia, tolerantzia eza eta indarkeria bultzatzeko helburuarekin.

**42. ARTIKULUA Indarkeria bultzatzea**

1. Futbolarien portaera eta keinu oldarkorrak, arbitroarengana, beste jokalari batzuengana ala ikusleengana zuzentzen direnean, baita zuzendarien, klubetako jarduneko ala zuzenbideko administratzaileen, teknikarien, arbitroen eta futbolarien adierazpen publikoak, bere taldeak ala ikusleak indarkeria praktikatzera bultzatuko dutenak, aurreko artikuluan xedatuari jarraiki, aplikatuko dira:

a) Kirol organizazioan karguak betetzeko baliogabetzea ala federazio lizentzia kentzea, jardueren arduradunak kirol lizentzia erabilgarri izaten duenean. Zigorra behin-behinekoa izan ahal da, bi eta bost urte bitartekoa, edota salbuespen modura behin-betikoa izango da, arau-hauste oso larriak errepikatzen direnean.

b) Klub, futbolari, arbitro eta zuzendarientzako zigor ekonomikoa, 300- 3.000 € bitartekoa.

**43. ARTIKULUA Indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta tolerantzia eza sustatzea, antolatzea, zuzentzea, estaltzea ala defendatzea**

1. Aurreko artikuluan deskribatu pertsonen jarduerak eta jarrerak sustatzeagatik, antolatzeagatik, zuzentzeagatik, estaltzeagatik ala defendatzeagatik, ondorengo zigorrak ezarri ahal izango dira:

a) Kirol organizazioan karguak betetzeko baliogabetzea ala federazio lizentzia kentzea, jardueren arduradunak kirol lizentzia erabilgarri izaten duenean. Zigorra behin-behinekoa izan ahal da, bi eta bost urte bitartekoa, edota salbuespen modura behin-betikoa izango da, arau-hauste oso larriak errepikatzen direnean.

b) Klub, futbolari, arbitro eta zuzendaritzako zigor ekonomikoa, 300-3.000 € bitartekoa.

**44. ARTIKULUA Indarkeria, arrazakeria, xenofobia ala tolerantzia eza jarduerak erakustea ala bultzatzea**

1. Indarkeria, arrazakeria, xenofobia ala tolerantzia eza erakusten duten ala kirolean portaera mota hori bultzatzen duten jardueretan parte hartzea, arau-hauste oso larria kontsideratuko da.

Artikulu honen xedeetarako, kontsideratzen da, edozein kasutan, partaidetza aktibo modura, adierazpenak, kainu laidogarriak edota beste edozein jarrera pertsona ala talde bat iraintzea inplikatzen dutenak, bere jatorrizko arraza, etnia, erlijioa, sinesmenak, minusbaliotasuna, adina, sexua ala sexu orientabidea dela eta.

2. Arau-hauste horiengatik ondorengo zigorrak ezarri ahal dira:

a) Kirol organizazioan kargua hartzeko baliogabetzea ala federazio lizentzia kentzea, jardueren arduradunak kirol lizentzia erabilgarri izaten duenean. Zigorra behin-behinekoa izan ahal da, bi eta bost urte bitartekoa, edota salbuespen modura behin-betikoa izango da, arau-hauste oso larriak errepikatzen direnean

b) Klub, futbolari, arbitro eta zuzendaritzako zigor ekonomikoa, 300-3.000 € bitartekoa

**45. ARTIKULUA Indarkeria, arrazakeria, xenofobia ala tolerantzia eza portaeren errepresioa**

1. Segurtasun neurririk ez hartzea edota indarkeria, arrazakeria, xenofobia ala tolerantzia eza erakusten duten portaeren errepresioan eginbide ala kolaborazio eza jazotzean, arau-hauste oso larritzat hartuko da.

2. Arau-hauste horiek ondorengo zigorrekin punituko dira:

a) Kirol organizazioan kargua betetzeko baliogabetzea ala federazio lizentzia kentzea, jardueren arduradunak kirol lizentzia erabilgarri izaten duenean. Zigorra behin-behinekoa izan ahal da, bi eta bost urte bitartekoa, edota salbuespen modura behin-betikoa izango da, arau-hauste oso larriak errepikatzen direnean.

b) Klub, futbolari, arbitro eta zuzendaritzako zigor ekonomikoa, 300-3.000 € bitartekoa.

c) Kirol-esparrua ixtea, lau partidu eta denboraldi bat bitarteko eperako.

d) Partiduak atea itxita ospatzea.

e) Sailkapenean puntuak ala postuak galtzea, arautegi honetan deskribatu terminotan.

f) Kategoria ala maila galtzea ala jaistea.

g) Taldea txapelketatik kanpo uztea.

## 46. ARTIKULUA Emaitzen aurretiko zehaztapen

1. Emaitzen aurretiko zehaztapenera zuzendautako jarrera gustiak, arau hauste oso astu moduan kontutan hartuko da eta hurrengo artikukuluan ezarraitakoaren arabera zigortuko da.

a) Arbitroei egindako emari, opari, eskaintza edo promesen bidez jarduera partziala lortu edo lortzen saiatzen direnek eta horrelakoak onartu edo eskuratzen dituztenek bi urtetik bost urtera bitarteko desgaitze zigorra jasoko dute oso arau-hausteastunare egile gisa; gainera, sailkapenean hiru puntu kenduko zaizkie horretan nahasitako klubei, eta partidua baliorik gabe utziko da, hurrengo artikuluko 1. atalak ohartarazitakoa gertatuz gero errepikatu ahal izango delarik.

b) Bi talde lehiakideen, bietako baten edo haietako jokalariren baten ezohiko jardueraren bidez, zeharkako bide gisa jokalari horietako edozein zerrendan bidegabeki sartzea, ohikoa baino nabarmenki makalagoa den ekipoa aurkeztea edo beste edozein bitartek erabiliz partidu batean emaitza irregularra lortzera zuzendutako akordioetan parte hartzen dutenak oso arau-hauste astunaren erantzuletzat joko dira eta bi urtetik bost urtera bitarteko desgaitze zigorra jasoko dute, sailkapenean hiruna puntu kenduko zaikie nahasitako klubei eta partidua baliorik gabe utziko da, eta soilik errepikatu ahal izango da lehiakideetako bat errudun ez bada eta berarentzako edo errudun ez den besterentzako kalteak sortzen badira.

2. Gisa horretako egintzen zuzeneko erantzuleak izan gabe nola edo hala haietan parte hartzen dutenek bi urteko desgaitze edo lizentzia galtze zigorra jasoko dute.

3. Beti ere, ordaindutako diru kopuruak dekomisatu egingo dira.

4. Honako artikuloko 1 atalean deskirbtutako jarreren atekina ateratzen dun klubak mailaren galera jasoko du zigortzat, beti frogatu daitekenean edonolako lotura duela arau haustearen egilearekin.

## 47. ARTIKULUA Bidegabeki zerrendan sartzea

1. Partidu batean parte hartzeko baldintzarik ez daukalako futbolari bat bidegabegijokalari-zerrendan sartzen duen klubari partidua galdutzat emango zaio eta irabazletzat hartuko da lehiakidea hiru eta hutseko emaitzaz (puntuaketa altuagoa lortu bada izan ezik) lehiketa puntuka bada. Kanporaketa bidezko lehiaketa bada, erregubearen alde ebatziko da.

Horrez gain klub erantzuleari 300 eta 1.200 € bitarteko isun gehigarria ezarriko zaio.

2. Futbolaria bidegabeki zerrendan sartzea hura federazioaren etendurapean egoteak eragin badu, partidua (talde arau-hauslearentzat galdutzat emango dena) zenbatu egingo da bidegabeki jardun duen jokalariaren zehapena betetzeko.

3. Artikulu honek aipatzen dituen arau hausteei dagokionez, ustezko hauslearen maila edo talde bereko klubek izango dute salatzaile gisa jarduteko eskubidea. Horrelakoetan, disziplina organo eskudunari esleituko zaio prozedura.

## 48. ARTIKULUA partidetara ez agertzea , lehiaketatik erretiratzea edo lehiaketatik kanpo uztea

1. Talde bat partidu ofizial batera ez agertzeak edo lehiaketarik atzera egiteak honako

ondorio hauek ekarriko ditu:

a) Kanporaketa bidezko txapelketa bada, ez agertuari edo erretiratuari, galdutzat emango zaio, edozein delarik kanporaketa fasea; eta azkeneko partiduan izango balitz, aipatu finala beste finalista eta legea hautsi duenak kanporatutakoaren artean jokatuko da. Edozein kasutan, ez agertua edo erretiratua ezin izango da aurkeztu txapelketaren hurrengo ediziora.

b) Puntu bidezko txapelketa bada, arau-hausleari partidu galdutzat emango zaio, eta aurkaria irabazletzat hartuko da, hiru eta hutseko emaitzarekin.

2. Denboraldi berean bigarren aldiz agertzen ez bada, edo erretiratu edo baztertzen bada, erruduna lehiaketatik kanpo utziko da, ondorio hauekin:

a) Edozein dela arau-haustearen data, berarekin lehiatuko ziratekeen talde guztieklortutako emaitzak bertan behera geratuko dira

b) Kluba denboraldi berean bigarren aldiz agertzen ez bada edo lehiaketatik kanpo geratzen bada, denboraldia amaitzen denean beheko hurrengo mailan geratuko da – lehiaketaren oinarrietan jaitsiera egiteko aurreikusitako plazen artean zenbatuko da –, eta ez du mailaz igotzeko eskubiderik izango beste bat igaro arte, eta arau-haustea gauzatzean birtualki jaitsita badago, hurrengo mailara.

3. Edozein kasutan, edozein motatako ez agertzeak, araua hausten duen taldeari, 300etik 1.200 €ra bitarteko isuna ekarriko dio eta ez agertua bisitaria balitz,47. artikuluaren 2. paragrafoko 1. puntuak xedatzen duen moduan, aurkariari ordaindu beharko dio.Era berean, agertzen ez denak dagokion partidaren arbitraje-eskubide osoak ordaindu beharko ditu.

4. Artikulu honetan ohartarazitako ondorioetarako, ez-agertzea honako hau izango da: egutegi ofizialak adierazitako edo organo aginpidedunak jarritako datan kirol konpromiso batera ez joatea, bai asmo maltzurrez bai arduragabekeria nabarmenez; baita halaber ere, taldea agertu eta partidua jokatu arren, izaera orokor edo bereziz araudi bidez ezarritako baldintza eta betekizunak biltzen dituzten jokalarien kopurua askieza izatea. Azken kasu hori dagokionez, ezin aurrikus zitekeen edo aurrikusita ere ezin sahets zitekeen zioren bat egotea salbuespen izango da; ez da horrelakotzat joko dagokion klubari lepora dakiokeen eta berehalako ondorio gisa horretara derrigortuta dauden futbolariek parte ez hartzea dakarren gertakariren bat tartean izatea, jokalari horiei legokiekeen erantzukizunaren kalterik gabe.

**49. ARTIKULUA Partidak bertan behera uztea, behar besteko aurrerapenarekin ez agertzeagatik**

Arduragabekeriaz talde bat partida jarritako orduan has dadin beharrezko den aurrerapenaz agertzen ez bada eta horren ondorioz partida bertan behera utzi behar bada, partida galdutzat emango zaio, eta lehiakideak hiru eta hutseko emaitzaz irabazi duelairitziko zaio.

**50. ARTIKULUA Partida baten jokalekua uztea**

1. Partidua hasitakoan talde batek jokalekua uztea, edo jokatzeari uko egitea, ez-agertutzat joko da eta araubide honetako 48 artikuluan bildutako erabakiak aplikatuko zaizkio eta sailkapenetik hiru puntu kendu.

**2**. Partidu baten esekidura talde bat araudiak ezarritako jokalari kopurua minimoa baino gutxiagoreki geratzeagatik bada, eta gutxitze hori kanporaketen edo partidua espezialitate bakoitzarentzat ezarrita dagoen gehiengo jokalariak baino gutxiagorekin

hasteagatik bada, partidua aurkakoaren alde hiru eta huts-eko emaitzarekin konponduko da, salbuespen batekin jokatutako denboran emaitz faboragarriagoa lortu ezkero.

3. Denboraldian zehar aurreko puntuan azaldutakoa hiru aldiz gertatu ezkero, klubari 300€ isuna ezarriko zaio eta taldea txapelketatik kanporatua izango da, araudi honetako 48 artikuluko disposizioak aplikagarriak izanik.

**51. ARTIKULUA Lehiaketa uztea**

Hasitakoan talde batek lehiaketa uzteak, edo hasi baino lehen egutegia eginda dagoenean 300etik 3.000 €ra bitarteko isuna ezartzea ekarriko du eta, gainera, 48. artikuluan 1 eta 2 atalean, ezartzen direnak aplikatuko dira.

**52. ARTIKULUA Epaileen ordainketen betebeharra berahustea**

Denboraldi berean laugarren aldiz araudi honetan finkatutako arbitroen dirusarien ordainketaren betebeharra betetzen ez duen taldeak lehiaketatik kanpo geratuko da, araubide beronetako 48.artikuluan ohartarazitako ondorioekin.

**53. ARTIKULUA Gertakarien neurketa**

1. Partida batean publikoan inzidente oso larriak gertatu ezkero, kirol instalazioko klub titularrari, lau partidutik urte baterainoko itxiera zigorra, eta 600 €tik 1.200€ bitarteko isuna.

2. Gertaeren larritasun maila zehazteko, izandako egoerak hartu behar dira kontuan, aurrekariak egotea edo ez, hau da, lesionatzea edo ez; gerta zitekeenaren arrisku argiaz ohartzea, hura ekiditeko antolatzailearen zaintza beharrezkoa izan zitekeen kasuan salbu; gertakarien eragina, jokoaren garapen normalean; pertsona parte-hartzaile kopuru handiagoa edo txikiagoa, eta orokorrean, disziplina erakundeak modu arrazionalean goraipatzen dituen gainerako guztiak, modu zehatzean larritasunaren faktore erabakigarri gisa kualifikatuz klub antolatzailearen jarrera pasiboa edo arduragabea edo bere bizkortasun gabezia, identifikatu eta eskumeneko agintaritzaren esku jartzeko gertakariko protagonistak, eta laburbilduta, antolatzaileari kirol instalazioetan indarkeria prebenitzeko alorrean eragiten dioten lege eta arauzko betebeharren betetze maila.

Arbitroren batek erasoak jasoz gero, eta ondorioz laguntza medikoa behar izanez gero, min hartutakoak dagokion sendagilearen partea igorri beharko du.

3. Klubek publikoan sortu daitezkeen ustekabeen aurrean hartu ahal dituzten neurri disziplinarioen identifikazioa, adopzioa edo geldiarazpena, kontutan hartu ahal izango da, organu disziplinarioengatik santzioen gutxigarri bezala.

**54.ARTIKULUA**

Partidu batean zalantzarik gabe klub bisitariaren jarraitzaile gisa ondo identifikatutako pertsonek egiten dituztenean, 150 €tik 300 € arteko isuna ezarriko zaio klub bisitariari, eta berrerortze kasuan, kirol instalazioen bi partidutik bi urteko ixtearen gaineko ohartarazpena egin dakioke.

**55. ARTIKULUA erasoak partida jokoan dagoenean**

Min egiteko asmo nabarmenez norbaiti eraso egin eta erasoak oso lesio larria sortzen badu, sei hilabetetik hiru urtera bitarteko etenduraz zigortuko da erasotzailea, bai erasoaren izaeragatik beragatik bai lesioak dakarren baja-denboragatik.

Irainduak arbitroa edo marrazainak izanez gero, zigorra hiru urtetik bost urtera bitartekoa izango da. Halaber, bi eta hiru urte bitarteko etenduraz zigortuko da talde lehiakideetako edo zein jokalari, entrenatzaile edo kideri eraso egiten dion arbitroak, bai eta beste arbitro, laguntzaile edo zuzendaritzakide, buruzagi, ikusle eta kirol agintariei eraso egiten diena ere.

## II. KAPITULUA

## ARAU-HAUSTE LARRIAK

### 56. ARTIKULUA Jokoz kanpoko sustapenak

**1.** Hirugarren klub batek, aldeko emaitza lortzeko pizgarri gisa, eskudirua edo dirutan balio-neurtu ahal diren sariak agindu edo ematen baditu hilabeteik sei hilabetera bitarteko etendura zigorra ezarriko zaie bai klub horri, bai horrelakoak onartu edo hartzen dituztenei. Halaber, 300 eko isuna ezarriko zaie horretan nahasitako klubei eta jasotzaileei. Gainera, ordaindutako diru kopuruak dekomisatu egingo dira.

**2.** Horrelako egintzetan bitartekari gisa esku hartzen dutenek hilabeteik hiru hilabetera bitarteko etendura edo desgaitze zigorra jasoko dute.

### 57. ARTIKULUA Pertsonal erantzukizuna zerrenda bidegabekoa egiteagatik

1. 47. artikuluan ohartarazitako egoeraren zuzeneko erantzule direnzuzendari eta teknikariak bi hilabetetik sei hilabetera bitarteko etendura zigorra jasoko dute.

2. Gauza bera gertatuko zaio horrela jotzen duten jokalariari, ezin bada frogatu zalantzarik gabe kluba edo taldearen arduradunen aginduak betetzeb zegoela edo bere ezjakina oker egiten hari zela.

### 58. ARTIKULUA Pertsonal erantzukizuna ezagerte kasuetan

48. artikuluan ezartzen diren egoeren zuzenki arduradun diren pertsonek, bitik seirako hilabeteko zigorra izango du.

### 59. ARTIKULUA Jokatzerik galerazten ez duen partidara berandu agertzeak

Talde bat kirol instalazioetan arrazoigabeko atzerapen nabarmenez agertzen bada baina, hala ere, horrek partidua jokatzeaeragozten ez badu, 60 etik 300 era bitarteko isuna ezarriko zaio klubari, eta bi hilabetera arteko etendura zigorra izeneko erantzuleei.

### 60. ARTIKULUA Partida antolaketaren berezko betebeharrak

Partiduak antolatzearen berezko betebeharrak eta haien garapen egokirako beharrezko direnak betetzen ez dituzten klubak 60 etik 300 €ra bitarteko isunaz zigortuko dira, eta,egintzaren ondorioen arabera, kirol instalazioak partidu batetikhiru partidura bitarteko epeaz itxiko zaizkie.

### 61. ARTIKULUA Jokalekuaren egoeren aldaketa

Jokalekuaren egoera maltzurkeriaz eraldatzen bada edo, berariaz zein arduragabekeriaz, ezinbestean edo ezusteko istripuz izandako akatsak konpontzen ez badira eta hori dela eta partidua bertan behera utzi behar bada, zigor-organoak erabakitako datan jokatako da, zelai, neutralean, eta dagokion klubak 60 etik 300 €ra bitarteko isuna jasoko du. Gainera, egintzaren zuzeneko erantzule diren pertsonek

hilabetetik hiru hilabetera bitarteko desgaitze edo etendura zigorra jasoko dute.

Partidua jokatzerik badago 60 etik 150 €ra bitarteko isuna ezarri eta jendaurreko karguhartzea egingo zaie zuzeneko erantzuleei.

**62. ARTIKULUA Publikoaren Istiluak**

1. Partida bat dela-eta larritzat jotako ikusle-intzidenteak gertatzen badira, kirol-esparruaren klub titularrari partida bat eta hiru bitartean ixteko zehapena ezarriko zaio, 150 eta 600 euro bitarteko isun gehigarriarekin, edo partida ateak itxita ospatzea, partida bat eta hiru bitartean, 150 eta 600 euro bitarteko isun gehigarriarekin.

2. Larritasun maila ezartzeko titulu honetako 53.2 artikuluan ezarritako arauak kontutan izango dira.

3. Gertakari horien protagonista zalantzarik gabe klub bisitariaren jarraitzaile gisa identifikatutako pertsonak direnean, 150-600 € bitarteko isuna jarriko zaio, eta kirol-esparrua partida baterako ixtea edo partida bat edo hiru partidarako ateak itxita ospatzea erabaki daiteke, 150-600 €ko isun gehigarriarekin.

**63. ARTIKULUA Zelai neutralan istiluak**

Zelai neutralean jokatutako partiduetan istilu larriak edo oso larriak gertatzen badira, 60 etik 300 €ra bitarteko isuna ezarriko zaie bi lehiakideei edo, hala badagokio, haietako bati, baldin eta istiluak beraren jarraitzaileek sortu dituztela zalantza izpirik gabe frogatzen bada.

**64. ARTIKULUA Ez betetzeak, eraso gertakariak, kexak**

Jarraian zerrendatutako arau-hausteengatik 60 etik 300 era bitarteko isuna, hilabetetik bi urtera bitarteko edo gutxienez lau partidurako desgaitze edo etendura, edo hiru partidu edo bi hilabetera arteko itxiera zigorra ezarriko da, araudi honen bildutako arauei lotuz zigor-organo aginpidedunak erabakitakoaren arabera.

a) Federazioko organo eskudunek emandako aginduak, jarraibideak, akordioak, zirkularrak edo arauzko betebeharrak ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da, arau-hauste larritzat edo oso larritzat kalifikatutakoak izan ezik.

b) Kirol arloko duintasun eta txukuntasunaren aurkako jendaurreko egintza nabarmenak.

c) Protesta tumultuaria al árbitro o asistentes sin posibilidad de identificación de los integrantes del tumulto.

**65. ARTIKULUA arbitoren zerbitzu-sariakk ezordaintzeak**

Arbitroari dagozkion zerbitzu-sariak ezarritako era, kopuru eta baldintzetan ordaintzeko betebeharra denboraldi berean bigarren adliz betetzen ez duen klubak 60 etik 300 €ra bitarteko isuna jasoko du.

Hirugarren aldia bada, sailkapenean bi edo hiru puntu kenduko zaizkio, ezarritako puntuaketa sistemaren arabera.

**66. ARTIKULUA Futbolarien arau hausteak**

Honako hau lau partidutik hamabi partidura bitarteko edo hiru hilabetera arteko etenduraz zigortuko da:

a) Ikuslegoaren gaizkinahia pizten ahalegintzea eta helburu hori lortzea, horren ondorioz istilu larriak gertatzen direlako arau-haustea astunagotzat jotzen ez bada.

b) Arbitroa, marrazainak, zuzendaritzakideak edo kirol agintariak iraintzea, txistua botatzea edo mintzea, sarritan eta modu bereziki nabarmenean egiten bada, eta falta astunagotzat jotzen ez bada.

c) Aurreko azpiatalean aipatutako per-tsonak mahatxatu edo zerbait egitera behartzea, xede hori betetzeko asmoa agerian uzten duen eran eta neurrian, eta halaber, arauhauste astunagotzat jotzen ez bada.

d) Arbitro edo marrazainei heldu, bultzatu, astindu, eta hozka egin oro har, indarkeria bigunekoak direlako egileak erasotzeko asmorik izan ez duela egiaztatzen duten antzeko jarrerak erakustea.

e) Jokoa dela eta aurkari batekin indarkeriaz jardutea, euren izaeragatik edo eragin dezaketen geldialdiagatik larritzat jotzen diren kalte edo lesioak sortuz, baldin eta falta astunagotzat jotzen ez bada.

f) Besteri erasotzea, lesiorik sortu gabe. Arau-hauste honetan beharrezkoa den maltzurkeriaren faktore eragilea egintza jokoa geldirik dagoenean burutzea izango da, edo une horretan jokatzen ari den ingurutik hain urrun non jokaldian parte hartzea ezinezka baita.

g) Edozein bide erabilita jokaldi baten etendura eragin.

h) Joko zelaira sartu, utzi edo indarrez sartu dagokion epaile baimenik gabe.

i) Kirol instalazioetan kalta larriak eragitea.

j) Teknikoak, Araudi Orokorreko 89.4 artikuluan ezartzen duena behin eta berriro ez betetzea.

k) Partida batean parte hartzen duten lizentzia-titularren identitatea ordeztea.

**67. ARTIKULUA Minduari kaltea**

Aurreko artikuluko f) azpiatalean ohartarazitako falta egin eta irainduaren baja dakarren lesioa sortzen duenak sei partidutik hamabost partidura bitarteko edo lau hilabetera arteko etendura zigorra jasoko du, falta astunagotzat jotzen ez bada.

**68. ARTIKULUA Arbitro, Zuzendari edo kirol agintei erasoa**

1. Arbitro, marrazain, zuzendaritzakide edo kirol agintariei erasotzen dienak hiru hilabetetik sei hilabetera bitarteko etendura zigorra jasoko du, egintza bakarra bada eta inolako kalterik sortzen ez badu.

2. Zigorra sei hilabetetik urtebetera bitartekoa izango da irainduak, lesiorik ez jasan arren, osasun laguntza behar badu edo, horrelakorik gabe ere, egintzaren nolakotasuna kontutan izanik, arrisku larria egon dela irizten bazaio eta falta astunagotzatzen ez bada.

**69. ARTIKULUA Kiroltasuna**

Kiroltasunaren aurkako portaera erakusten dutenek lau partidutik hamar partidutara bitarteko eta edo hiru hilabetera arteko etendura zigorra eta 150etik 600 €ra bitarteko

isuna jasoko duten, arau-haustea oso larritzat jotzen bada.

**70. ARTIKULUA akten idazketa arduragabea**

1. Ardurarik eza nabarmenez aktak idaztean arbitroak gorabeherak era nahasgarrian azaltzen baditu edo zigor-organoek gorabehera horiek epaitu eta sailkatzeko ezinbesteko dituzten gertaera, datu edo argibideak jasotzen ez baditu, bi hilabetetik lau hilabetera bitarteko zigorra jasoko du.

2. Maltzurkeria tartean dela arbitroak aktak fideltasunez idazten ez baditu, edukina osorik edo zati batean faltsutzen badu, gertaerak edo portaerak hutsaldu edo ezkutatzen baditu, edo egia esaten ez badu edo gertaera zein portaerei buruzko nahastea sortzen badu, hiru hilabetetik hamabi hilabetera bitarteko etendura zigorra jasoko du.

3. Halaber, bi hilabetetik laura bitarteko etendura zigorra ezarriko zaio talde lehiakideetako edozein jokalari, entrenatzaile edo kide eta beste arbitro, laguntzaile, zuzendaritzakide, buruzagi, ikusle edo kirol agintari astuntasunez eta berreturik derrigortu, mehatxu egin, erronka jo edo, hitzez nahiz egitatez iraindu, mesprezatu edo laidoztatzen duen arbitroari.

4. Urratze larritzat hartuko dira ondokoak ere eta bi eta lau hilabete bitarteko etenduraz zigortuko dira:

a) Partidu batera ez agertzea inolako arrazoirik gabe.

b) Partidu bat bertan behera uztea horretarako aurreikusitako iguruabarik egon gabe.

c) Partidua hasi aurretik, bitartean eta ondoren gertatutako agitaeei buruz txostenik ez egotea, egitea dagokionean Diziplina Batzordeak izendatu gabe.

d) Lagunarteko partiduak zuzentzea horretarako baimenik gabe eta dagokion Batzorde Teknikoak izendatu gabe.

e) Aurretik komentatutako pertsonei kalte gabeko erasoa egitea

**71. ARTIKULUA Ordezkarien arau hausteak**

Talde- edo zelai-ordezkari batek dagozkion betebeharrak betetzen ez baditu eta horrek arbitro, zuzendaritzakide, jokalari edo teknikarien osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten ekintzak sortu edo eragiten baditu, bi hilabetetik hamabi hilabetera bitartek etendura zigorra jasoko du.

**72. ARTIKULUA Entrenatzaileekin harremana duten arau-hausteak**

1. Entrenatzaileekin dute arau hausteen falta bereziak honako hauek dira:

a) Titulua mailegatu edo lagatzea, edo beste norbaitek entrenatzaile gisa jardun dezan onartzea; eta, zerbitzuak egiten dizkion klubaren barruan, dagozkion egitekoak itundu baino erantzukizun handiagoz edo goragoko kategoriaz gauzatzea.

b) Entrenatzeko titulu bat mailegaturik edo lagaturik eskuratzea.

c) Eskatutako titulua eduki gabe edo lizentziarik gabe entrenatzea.

d) Lizentzia, kontratua edo lizentzia lortzeko oinarri gisa balio duen beste edozein agiri

faltsutzea.

e) Araudi honen 35. artikuluak biltzen duen galarazpenenartariko batean erortzea, etendura zigorren betetzearekin erlazionaturik.

f) Lizentziarekin ekipo jakin baten alde beste batean esku hartzea.

g) Lizentzien bikoiztasuna egiten duena.

2. Horrelako egintzen erantzuleak hilabetetik bi urtera bitarteko etendura zigorra jasoko du.

3. Halaber, egintza horien erantzulea den edo kategoriari dagokion titulua ez duen pertsonari entrenatzeko baimena eman dion klubak edo kirol elkarteak 150 €tako isuna jasoko du, edo 300€koa Araudi Orokorrean araututako betebeharra urratuko balu

**73. ARTIKULUA Lizentzien Bikoiztasuna**

1. Inskripzio-eskabidearen eskaria bikoizturik egiten duen lizentzairen titularrak hilabetetik hiru hilabetera bitarteko etendura zigorra jasoko du.

2. Zigor hori lizentzairen titularra beste klub baten izenean inskribatzen den edo talde berberaren izenean beste lizentzia bat izenpetzen duen egunetik aurrera beteko da. Beste inskripziorik ez badago, lizentzia indargabeturik geratu eta hurrengo denboraliko irailare lehenetik aurrera hasiko da betetzen.

**74. ARTIKULUA Beste talde batean partehartzearen debekatua**

**1.** Klub baten aldeko lizentzia daukaten eta lehenengoaren baimenik gabe, legezko xedapenek ezarritakoan izan ezik, beste baten taldean jokatu edo entrenatzen duten futbolariek hilabete bat eta hilabete bitarteko etendura zigorra jasoko dute.

**2**. Era berean, jokalariek bidegabeki esku hartzen duten klubak era zigortu egingo dira 300 etik 1.200 €ra bitarteko isunaz.

## III. KAPITULUA

## ARAU-HAUSTE ARINAK ETA BERE ZIGORRAK

**75. ARTIKULUA Publizitatea**

Jokalarien kirol jantzietako publizitatea araupetzen duten erabakiak betetzen ez dituzten klubek 60 €rainoko isuna jasoko dute.

**76. ARTIKULUA Ikuslegoan Gertakariak**

1. Partida/jardunaldi 1etik 3ra bitarteko etenaldia eta/edo 150€-tarainoko isuna, zeinen jokaera kiroltasunaren aurkakoa hutsegite arina izaten denean.

2. Era berean, 150 € arteko isuna ezarriko zaie pankartak, kartelak, muralak edo beste edozein bereizgarri erakusteko aukera ematen duten klub eta buruzagiei, hirigintzaren aurka egiten duten soinudunak barne.

**76. ARTIKULUA Bis Kiroltasuna**

150€-tarainoko izuna, zeinen jokaera kiroltasunaren aurkakoa hutsegite arina izaten denean.

**77. ARTIKULUA Partidak eragindako ohartarazpenak**

1. Honako hau kargu-hartzez zigortuko da:

a) Joko arriskutsua.

b) Arbitroaren baimenik gabe jokalekuan sartu, irten edo itzultzea.

c) Arbitroari edo haren laguntzaileei oharrak edo adierazpenak egitea.

d) Arbitro, marrazain, kirol agintari, zuzendaritzaikide, teknikari, ikusle edo beste jokalariekin begirunerik gabe jardutea.

e) Arbitroaren agindu, erabaki edo artezpideak betetzean pasiboki edo arduragabekeriaz jardutea, entzungor egitea edo kasurik ez egitea.

f) Denbora nahita galtzea.

g) Edozein falta tekniko egitea, horren ondorioz arbitroak arau-hausleari kargu hartu badio.

h) Partida batean gol bat ospatzean futbolariak elastiko burutik gor igo edo kentzen duenean.

i) Joko-arauek edo FIFAren erabakiek ezarritakoaren arabera arau-haustea izateagatik txartel horia erakutsiz arbitroak arau-hausleari kargu hartzeaekartzen duen beste edozein egintza edo ez-egite, zigor-organoak egintza hori astunagotzat jotzen ez badu, rau eta erabaki horietan oinarriturik arbitroak jokalekutik egoztea erabakitzen badu, 79 artikuluan oharta-razitakoari lotuko zaio.

2. Joko-arauen aplikazioa eta interpretazioa arbitroen eskumenekoa izango da esklusiboki eta era guztietan, diziplinazko federazio organoek horien berri izatea ezinezkoa izanik.

**78. ARTIKULUA Partidak erangindako ohartarazpe bikoitza**

Partidu batean arbitroak jokalari bati bigarren aldiz kargu hartu eta, horrenbestez, jokalekutik kanpora egozten badu, jokalariak partidu baterako etendura zigorra jasoko du zentzagarri handiagorik ez badagokio-, bai eta dagokion diruzko osagarria ere.

Kasu hauetan, aurreko artikuluan ohartarazitako zikloek beren ildotik jarraituko dute.

**79. ARTIKULUA Lizentziaren titularrak zuzenean jokalekutik kanpora egoztea**

1. Partida batean zuzenean kanporatu denari zigorra ezarriko zaio, partida batekoa, gutxienez, egintzak arau-hauste larriagoa ez badakar, behinik behin, eta diruzko isuna erantsiko zaio.

Zelaitik kanporatua izan den futbolariak baloia jokatzeko aukerarik izan ez badu, bi partidako zigorra izango du, gutxienez.

2. Kanporatuak izan diren jokalariek aldageletara jo beharko dute. Betebehar hori betetzen ez duenari partidu bateko, biko, edo hiruko zigorra ezarriko zaio, eta diruzko

isuna erantsiko zaio.

Kanporatua teknikoa izaten bada (entrenatzailea edo laguntzailea), ezin izango ditu agindurik eman, gainera, partidua irauten duen bitartean ezin izango da aulkien zelai ertzean jarri, bai ordea harmailan edota zelaiko beste edozein perimetroan zehar.

**80. ARTIKULUA Partida ezberdinetan bost ohartarazpe metatzeak**

1. Denboraldi eta lehiaketa berean horrelako bost zentzagarri metatzeak partidu baterako etendura ekarriko du, bai eta araudi honetako 31.5 artikuluan kasu bakoitzerako ohartarazitako diruzko zigor osagarria ere.

2. Zigorra betetakoan beste ziklo bat hasiko da, mota berekoa eta ondorio berberekikoa.

3. Partidan zehar artikulu honetan merituak egiten dituen bosgarren ohartarazpena eragiten duen futbolariari, artikulu honetako lehen paragrafoan aurreikusitako zehapenaz gain, etete-partida gehigarri bat ere ezarri ahal izango zaio, ordenamendu honetako 30. artikuluan, kasuaren arabera, aurreikusten den diru-osagarriarekin. Futbolariaren asmoa zehazteko, hainbat inguruabar hartuko dira kontuan, hala nola, hautsitako joko-arauaren izaera, futbolariak norgehiagokan izan duen jarrera, etab. Horretarako, norgehiagokako arbitroa gaituta egongo da gorabehera hori arbitraje-aktan jasoarazteko.

4. Lehen paragrafoan jasotako araua ez da aplikatuko jokalariak arau honek aipatzen duen zikloa betetzeko erabiliko lukeen kargu hartzea klubak dagokion lehiaketan jokatzen duen azken partidan gertatzen denean.

**81. ARTIKULUA Lizentzien jabea eta burukideen arau-hausteak**

Honako hau partidu batetik hiru partidura bitarteko edo hilabetera arteko etenduraz edo gaitasungabetzearekin zigortuko da:

a) Joko arriskutsua erabiltzea, irainduaren ahalmenak murrizten dituen kaltea ekarriz.

a) Beste norbait iraiundu, mindu, bultzatu, astindu, mehatxatu, hozka egin, listua bota edo zirikatzea, falta astunagotzat jotzen ez bada. Jarrera hori jasaten dutenak arbitro, marrazain, zuzendari edo kirol arloko autoritateak balira, etendura, gutxienez, bi partidutakoa izango da.

b) Arbitro, marrazain, zuzendaritzakide edo kirol agintariekin hitzez zein jarreraz iraingarri edo mesprezuz jardutea, egintza falta astunagotzat jotzez ez bada.

c) Norbait besteren aurka zirikatzea, xedea lortu gabe. Lortuz gero, eragite gisa zigortuko da, errudunari egintzaren egile materialari dagokion zigor berbera ezarriz.

d) Txukuntasun edo duintasunaren aurkako hitzak edo esaldiak jaregitea, edo haien lotsababekeria dela eta jendeak iraingarritzat jotzen dituen keinu edo imintzioak egitea.

e) Arbitro edo marrazainei nabarmenki eta sarritan protesta egitea, falta astunagotzat jotzen ez bada.

f) Ikuslegoaren gaizkinahia pizten ahalegintzea, xedea lortu gabe.

g) Jokoa dela eta edo jokaldiren baten zuzeneko ondorio gisa indarkeriaz jardutea, egintzak arriskua sortu bai baina kalte edo lesiorik eragiten ez badu.

h) Kirol instalazioetan kalte arinak eragitea.

i) Kirol-instalazioetan, parte-hartzaileen, arbitroen, ikuslearen edo federazio-erakundeko kideen ondasunetan kalte arinak eragitea, horien zenbatekoa ordaintzeko betebeharrari kalterik egin gabe.

j) Araudi Orokorreko 89.5 artikuluan ezarritakoa betetzen ez duen teknikaria.

**82. ARTIKULUA Itxura egin**

Arbitroa gaiztakeria dela medio akatsa edota nahastea egitera bultzatzen duen jokalaria, falta egin zaiola simulatuz edota beste baliabide ala jarrera dela medio iruzur eginez, zigortua izango da ohartarazpenarekin eta 60 € bitarteko isunarekin.

**83. ARTIKULUA Ordezkarien Arau Hausteak**

Dagozkion betebeharrak betetzen ez dituen zelai- edo partidu-ordezkariak hilabetera arteko etendura zigorra jasoko du, egintza hori falta astunagotzat jotzen ez bada.

**84. ARTIKULUA Arbitroen Akten idazketa**

Aktak idaztean edo bidaltzean araugabekeriak egiten dituen arbitroak hilabetera arteko etendura zigorra jasoko du, egintza hori arau-hauste astunagotzat jotzen ez bada. Zigor bera ezarriko zaio taldekide, zuzendaritzakide, ikusle eta kirol agintariei mesprezuz zuzendu edo haiekiko begirurerik eza erakusten duen arbitroari.

Era berean, urratze arinak izango dira ondokoak ere, eta zentzarazpena eta hilabeteko etendura bitarteko zigorra ezar daiteke haiengatik:

a) Partidu batena uniforme desegokiaz jardutea.

b) Partidua hasi aurretik futbol-zelaian ordukotasunik ezaz jardueren.

c) Parte hartzen ari diren taldeetako kideen kirolazkontrako jardueren aurrean jarrera pasibo edo arduragabeaz jardutea.
d) Izen emateak egitea antolatzaileen edo Arbitroen Zuzentzaren baimenik gabe.

**85. ARTIKULUA Arbitroen erabakien azterketa**

Jokalari, teknikari ala ordezkari batek arau-hauste bat aztertzean, ohartarazpena ala joko-eremutik kanporatzea inplikatzen duela kontsideratzen dutenean, diziplinazko organoak inposatuko ditu, hurrenez hurren ohartarazpenaren ala partidu baten etenaldia, jarduerari zigor larriagoa dagokion kasuan izan ezik, dagokion ordainketaren gehigarriarekin.

## IV. KAPITULUA

## LAGUNARTEKO PARTIDAK DIRELA ETA EGINDAKO ARAUHAUSTEEI BURUZKOA

**86. ARTIKULUA Lagunarteko partidak**

1. Lagunarteko partidu batean araudi honetan falta gisa tipifikatutako egintzak burutzen badira, arau-hausleari 60 erainoko isuna ezarriko zaio, edo falta egin den txapelketako partiduetarako etendura. Zigorra diruzkoa izanez gero, klubak oraindubehar du, honek

errudunari jasanarazteko duen eskubidearen kalterik gabe, erruduna profesionala izatekotan.

Kasu horietan, partidua jokatu den herrialdeko federakundearen zigor-organoari dagokio aginpidea.

2. Arbitro, marrazain, zuzendaritzakide edo kirol agintariei egindako erasoak aurreko atalean erabakitakotik kanpo geratzen dira, zeintzuk dagokien zigor batzordeak epaituko ditu.

## IV. TITULUA

## ARETO FUTBOLAREN ZIGOR ARAUBIDEARI BURUZKOA

### 87. ARTIKULUA Araudia eta zigor araudiaren ezartzea

1. Areto-futbolaren zigor-araubidea araudi honetan bildutako erabaki orokorrei lotzen zaie horren berezitasunak direla eta kirol mota horri ezin aplika dakizkiokeenak izan ezik, baita halaber ere idazpuru honetan zerrendatutako arau bereziei.

2. Areto-futbolaren arloan Bizkaiko Futbol Federakundearen zigortzeko ahalmena futbol-mota horren organo berezien bitartez eta klub, jokalari, zuzendaritzakide, teknikari eta haren arbitro-erakundea osatzen dutenen gainean erabitlzen da.

3. Zigortzeko ahalmen horrek, ondorio guztietarako eta kasu guztietan, areto-futbolaren arbitro-estamentu ofizialeko kideek zuzendutako partidu eta lehiaketa mota guztiak biltzen ditu, baita lagunartekoak ere.

### 88. ARTIKULUA partidak eragindako arau hausteak

1. Jokalari batek egindako falta batengatik zelaitik kanporatzen badute, partidu bateko zigorra izango du, lege-hauste larriagotzat jotzen den kasuan izan ezik, eta horrelako kasua suertatuz gero, diru-zigorra ere jasoko du.

2. Etenaldiaren zigorrak barne hartzen du, zigortuaren kluberako hautazko zigor modura, 7-26 €-koak lurralde kategoria goreneko kluben kasuan, 5-18 €-koak gainerako kategorietako klubetan, 2-8 €-koak gazteak, kadete eta emakumeen kategoriako kluben kasuan hurrenez hurren, dagokion partidu ala hilabete bakoitzeko, zigortua jokalaria, entrenatzailea, teknikaria, ordezkaria ala zuzendaria izaten denean.

3. Ohartarazpen hipotesietan, diru osagarria 3 €-koa lurralde kategoria goreneko kluben kasuan, 2 €-koa gainerako kategoriako klubetan, 1 €-koa gazteak, kadetea eta femeninoa kategorietako klubetan.

4. Ohartarazpenak ez dira metagarriak izango, inolako kasutan eta ezingo dira erabili, hori dela eta, etenaldia agintzeko.

5. Artikulu honek aurreikusten dituen gainerako santzioak, BFF-FVFko lurralde mailako txapelketetan parte hartzen duten taldeei aplikagarri izango dira.

### 89. ARTIKULUA Aurreikuspen neurriak

Ohiko ala ezohiko diziplinazko prozeduraren baitan gerta daitezkeen arau-hausteen kasuan, larritasun bereziko ezaugarriak direla medio, bereziki jendaurreko gertaeren arlokoak ala lehiaketaren orden egokiak hala gomendatzen dutenean, diziplinazko organoak, interesdunari jakinarazpena igorri aurretik, auzitegiko sumario izapidea dela medio, kautelazko neurriekin zigortuko ahal izango du, dagokion ondorengo erabakiari

utzi gabe.

**90. ARTIKULUA Zigorrak betetzeko modua**

1. Joko-eremua ixteko zigorra bete beharko da, nagusiki, beste udalbarruti batean finkatzen den joko-eremuan, federazio ordenamenduan ezarri baldintzak betetzen dituenean; hala ere, ixteko zigorra txapelketa organoak ordeztu ahal izango du, dagozkion zirkunstantzien arabera, ikuslerik gabe atea itxita jokatzeko egoeragatik.

2. Gaitasungabetzeko zigorra futbol kirol organizazioko jarduera mota orotarako izango da eta lizentzia kentzekoa, organizazioak horretarako indarrean jartzen duen organoaren eskumenekoa.

3. Epe jakinerako etenaldia absolututzat hartuko da partidu mota orotarako eta bete egin beharko da, urtebetetik gorako eperako ezarri denean salbu, jokoaren denboraldiko hilabeteen barne.

Partiduen etenaldiak lerrokatzeko ala jarduteko debekua inplikatuko du zigorrak barne hartzen dituen partidu ofizial horietan guztietan, dagokien segida kontuan hartuta, egutegia, atzerapena, errepikatzea edota beste edonolako zirkunstantzia aldatzean txapelketaren hasieran aurreikusia aldatuko litzatekeenean izan ezik.

**91. ARTIKULUA Kostua**

Partidua bertan behera utzi edo neurketa egin edo errepikatzea erabakitzen den kasu guztietan, arau-hausleak ordaindu behar ditu horrek sortutako gastu guztiak, arbitraia eskubideak eta taldeen bidai gastuak barne. Hori guztia, lehiaketa-eepaileak partehartzaileei edo ukitutako besteri ekarritako kalte eta galerak ordainarazteko erabakia hartzearen kalterik gabe.
Bildutako inguruabarrak aintzat harturik, lehiaketa batzordeak kiroldegia itxi beharrean ateak itxita eta ikuslerik gabe jokatzeko zigorra ahal du.

**92. ARTIKULUA Jokalariek, entrenatzaileek, teknikariek, ordezkariek, laguntzaileek eta taldeetako buruek egindako faltak eta zigorrak.**

1. Partidu berean bi txartel hori metatzea edota kiroletako jantziei buruzko arauak haustea, honako kopuruokin zigortuko da; Lurraldeko gorengo mailako kluba den kasuan, 7 €koa; gainontzeko mailetako kluben kasuan, 5 €koa; Kadete, gazte eta emakumezkoen mailetako klubak badira,2 €koa isuna izango dute hurrenez hurren.

2. Jarraian aipatuko diren falta arinak, gutxienez, ohartarazpen bateko eta gehienez, 3 partiduko zigorrekoak izan daitezke, baita taldeetako buruei ezarri ahal zaizkien hilabete artekoak ere.

a) Epailearen edozein erabaki, keinu edo adierazpen bidez protestatzea.

b) Epaileak emandako instrukzioak betetzeko unean, jarrera zabar eta pasiboa adieraztea edota bere aginduak ez betetzea, bai eta partiden hasiera eta garapenaren atzeratzea ekar dezaketen jarrerak adieraztea.

c) Epaile, ikusle, taldeetako buru edota bestelako kirol agintariengana, gutxiespen eta begirunerik gabeko adierazpen eta ekintzen bidez zuzentzea edo irainen bidez haiengana zuzentzea, dena dela, azken hipotesi honen kasuan, 3 partiduko zigorra ezarriko da

d) Lehian dauden taldeetako edozein jokalari, entrenatzaile edo kide mehatxatu, bortxatu edota aipatutakoei, hitzezko zein ekintzazko egintza laidogarriak egitea eta

larri eta behin eta berriro iraintzea.

e) Arestian aipatutakoei erasotzeko ahalegina zein burutu gabeko erasoa egitea.

f) Jokoan zehar, jokalari baten segurtasuna eraso dezaketen bitarteko gogor edo zakarrak, mindu gabe bada ere, erabiltzea.

g) Jokalarien behar ez bezalako zelairatzeen balizko kasuetan, eskuhartze zabarrak izatea, taldeak partiduetara ez agertzea edo erretiratzea.

h) Partidu bat bide onetik joan ez dadin, beste jokalari batzuk edota ikusleak zirikatzea edo bultzatzea.

i) Ikusleei zor zaien begirunearen kontra aritzea eta adieraztea edo ikusleren bat hitzez edo keinuz iraintzea.

j) Jokaldi bat edozein modutan eteten saiatzea.

k) Gertakarien egileari zelaian egotea baimentzen dion lizentziak berak ahalmentzen dizkion zereginak ez betetzea.

l) Epailearen baimenik gabe zelaitik alde egitea edo zelaira bertara sartzea. m) Kirol-instalazioetan kalte arinak eragitea.

m) Kirol instalaziotan, partaideen, arbitroen, ikusleen ala federazio organizazioko kideengan kalte arinak eragitea, dagokion zenbatekoaren diru-laguntza jasotzeko betebeharrari utzi gabe.

n) Eskumeneko federazio organoen aginduzko arautegiko ordenak, instrukzioak, hitzarmenak ala betebeharrak ez betetzea, ez betetze hori, dagozkion zirkunstantziak direla medio, arau-hauste larria kontsideratzen denean salbu.

o) Falta jasan izana simulatzea, falta larrietarako ezartzen den aurreikuspenari utzi gabe.

3. Jarraian aipatuko diren faltak, larriak izango dira eta 4 partidutik 12 partidu arteko zigorra izango dute edo taldeetako buruen kasuan, hilabetetik sei hile arteko zigorra izango dute:

a) Epaile taldearen edozein kide, taldeetako agintari edo BFF-FVFko langile edo bertako agintari bat mehatxatu, bortxatu edota aipatutakoei, hitzezko zein ekintzazko egintza laidogarriak egitea edota larri eta behin eta berriro iraintzea.

b) Aurretik adierazitako pertsonei erasotzen saiatzea edo eraso ez kontsumatua.

c) Lehian dauden taldeetako edozein jokalari, entrenatzaile edo kideren bat erasotzea.

d) Jokoan zehar bitarteko bortitzak erabiltzea, mina edo lesioa eraginez edo eragiteko asmoarekin.

e) Epailearen baimenik gabe, joko-zelaia uztea edo bertara sartzea, baldin eta ekintza honen bidez, norgehiagokak bide onetik jarraitzea oztopatuko bada.

f) Norgehiagoka batean ezohizko etena eragitea.

g) Kirol instalazioetan kalte larriak sortzea.

h) Kirol instalaziotan, partaideen, arbitroen, ikusleen ala federazio organizazioko kideengan kalte larriak eragitea, dagokion zenbatekoaren diru-laguntza jasotzeko betebeharrari utzi gabe.

i) Eremu aurkarian hutsegite larria simulatzea, bigarren penalti puntutik jaurtitzeko bidea emango lukeena.

4. Jarraian aipatuko diren faltak ere, larriak izango dira eta 13 partidutik 24 partidu arteko zigorra edo sei hiletik 2 urte arteko zigorra izango dute, hala nola:

a) Epaile taldearen edozein kide, taldeetako agintari edo Federakunde antolakuntza edota ikusleren bati egindako erasoa.

b) Norgehiagoka behin betiko etetea eragin dezaketen ekintzak burutzea.

c) Epaile taldeak jaso lezakeen eraso ahalegin baten aurrean, ez erabiltzea beraien segurtasun eta babeserako beharrezko eta egoki diren neurriak.

d) Jokoan bitarteko bortitzak erabiltzea, mina edo lesio nahiko larria emanez.

e) Jokalarien behar ez bezalako zelairatzeen balizko kasuetan, fede gaiztoz eta nahita jardutea, taldeak partidetara ez agertzea edo partidetatik beraietatik erretiratzea.

f) Jatorrizko klubaren derrigorrezkoa den baja agiririk gabe, beste klub batekin lizentzia sinatzea, edo aipatu agiria izanik edo derrigorrezkoa ez izanik ere, aurretiaz beste kluben batekin sinatuta ere egon balego.

g) Eskumeneko federazio organoen aginduzko arautegiko ordenak, instrukzioak, hitzarmenak ala betebeharrak ez betetzea, ez betetze hori, dagozkion zirkunstantziak direla medio, arau-hauste larria kontsideratzen denean edota jakinaren gainean ala behin baino gehiagotan egiten denean.

5. Epaile taldearen edozein kide, BFF-FVF direktibo edo langile, jokalari, entrenatzaile edo kontrako taldeko kide bat, ikusle oro har edozein pertsona erasotzea, oso falta larria izango da, eraso bereziki larri eta kaltegarria denetan eta 2 urtetik betiko zigortu arterainokoa izango da.

6. Ordezko jokalariek, teknikariek, entrenatzaileek edo ordezkariek eginiko faltek, zigorrik erdikoa jasoko dute edo horrela iritziz gero, goian aipaturiko zigorren artean, gradu minimokoa ezarriko zaie.

Araua talde bateko kideek zalapartaka eta denon artean hautsiko balute eta jokalariei ezin izango balitzaie gertakaria banaka egotzi, ikusleek sortutako istilutzat joko dira taldeei ezarri beharreko zigorrak.

**93. ARTIKULUA Arbitro-taldeko kideek egindako faltak eta dagozkien zigorrak.**

1. Atal honetan bildutakoak falta arinak dira eta kargu-hartzetik hasi eta hiru jardunaldira arteko etenduraz zigortuko dira:

a) Partidu batean jazkera egokia ez erabiltzea.

b) Dagozkion betebeharraz betetzean odukotasunik gabe jardute, batez ere partiduak hasi baino lehen hiri edo jokalekuan egoteari dagokionez.

c) Partiduen akta arduragabekeriaz, akatsez eta hutsunez idaztea eta erakundeari araudiak ezarritako epe eta bideetatik kanpo bidaltzea.

d) Edozein zio dela bide dagokion jardunaldian edo partiduan aritzeko ezintasunaren berri erakundeak eskatutako aurrerapenaz ez ematea.

e) Izendapenak ez jasotzea edo arrazoirik gabe arbuiatzea, bere egitekoak betetzeari uko eginez, eta izendapena saihesteko gezurrezko arrazoiak azaltzea.

f) Erakunde antolatzailearen edo arbitroen zuzendaritza-organoaren baimenik gabe izendapenak elkarturakatzea.

g) Joko-arauak ez ezagutzea, eta antola litezkeen hobekuntza teknikorako ikastaroetara edo gaitasun frogetara ez joatea.

h) Neurketan parte hartzen duten taldeek erakutsitako kiroltasunaren aurkako jarreren aurrean jarrera pasiboa edo arduragabekeria erakustea.

i) Taldeetako kide, zuzendaritzakide, ikusle eta bestelako kirol agintariei mesprezuzko adierazpenak egitea edo hainganako begirunerik gabe jardutea.

j) Partidetan parten hartzen duten Lizentzien ikusketaren beteheberra ez egitea banan bakoitzak nor den aztertuz.

2. Atal honetan bildutakoak falta astunak dira eta lau jardunalditik sei jardunaldira bitarteko etenduraz zigortuko dira:

a) Arrazoi gabe partidu batera ez agertzea.

b) Partiduen aktak idaztean huts tekniko edo materialak egitea, huts horiek partiduaren nondik norakoa nahastu edo emaitzean eragina izaten badute.

c) Horretarako ohartarazitako inguruabarrak biltzen ez badira ere partidua bertan behera uztea.

d) Lehiaketa-batzordeak eskatu diolako edo berez hala dagokiolako partidua hasi aurretik, jokatu bitartean edo amaitutakoan izandako gertaerei buruz egin beharreko txostena ez egitea

e) Mahai-laguntzaile batek arbitroen artezpideak ez betetzea.

f) Erakundeak horretarako baimendu edo izendatu gabe lagunarteko partiduak zuzentzea

3. Atal honetan bildutakoak ere falta astunak dira eta lau partidudik hamar partidura bitarteko etenduraz zigortuko dira:

a) Neurketan parte hartzen duten taldeetako jokalari, entrenatzaile edo kideak, beste arbitro edo laguntzaileak, zuzendaritzakide, buru, ikusle eta kirol agintariak mehatxatu, zerbait egitera behartu, erronka egin, hitzez edo egitez laidotu edo sarritan ea era larrian iraintzea.

b) Goian aipatutako pertsonetako edozeini erasotzeko ahalegin burutu gabea.

4. Atal honetan bildutakoak oso falta astunak dira eta zazpi jardunalditik betira bitarteko etenduraz zigortuko dira:

a) Beste kirol erakunde batek antolatutako areto-futboleko partiduak zuzentzea edo bertan jardutea arbitroen erakunde edo organoak horren berri jakin gabe eta

berariazko baimenik eman gabe.

b) Neurketan parte hartzen duten taldeetako jokalari, entrenatzaile edo kideak, beste arbitro edo laguntzaileak, zuzendaritzakide, buru, ikusle eta kirol agintariei erasotzea.

c) Partiduaren akta maltzurkeriaz eraldatu edo manipulatzea eta bertan gezurrak esatea, halako moldez non haren oharrak ez baitatoz bat jokalekuan gertatutakoarekin, eta maltzurkeriazko edo gezurrezko txostenak egitea.

**94. ARTIKULUA Klubek egindako faltak eta euren zigorrak**

1. Falta arinak, honako kopurutako isunekin zigortuko dira; senior mailan 21 €tik 59€ ra bitartean; gainontzeko mailetan, 11 €tik 21€ ra bitartean; emakumezko, Kadete eta gazteen mailetan, 5 €tik 8€ ra bitartean

a) Ikusleek sortutako istiluak, larriak edo oso larriak ez direnean.

b) Talde batek norgehiagoka batean puntualitate gutxi izatea edo hasiera atzeratzea, baldin eta partiduaren etena ez badakar.

c) Jokoaren arauen arabera, beharrezkoak diren baliabide teknikoei, futbol zelaiei eta euren baldintzei dagozkien xedapenak ez betetzea, baldin eta partiduaren etena ez badakarte, bai eta epaile edota taldeen aldageletako garbitasuna, osasungarritasuna, behar bezalako banaketa eta begiramenaren baldintzak ez betetzea.

d) Halabeharrez partiduetan parte hartu behar dutenak ez etortzea; hau da, entrenatzailea, talde-ordezkaria ala pista-ordezkaria, hutsegite larrietarako auzi honen inguruan ezarritako aurreikuspenari utzi gabe.

e) Partidua jokatu aurretik, segurtasuna indar publikoen edota pribatuen presentzia eskatu izanaren justifikazio eza.

f) Talde bat zuzentzen duen entrenatzaileak, edo ordekazriak horretarako beharrezkoak diren baldintzak ez izatea.

g) Futbol zelaira gauzak jaurtitzea edota ikusleek egintza laidogarriak egitea, lehian ari diren parte hartzaileei edo epaile taldeari, beti ere kalteak sortu ezean edota partidu etenda geratu ezean.

h) Partiduen hasiera ordua eta dataren berri, horretarako araututako epeetatik kanpo ematea.

i) Epaileari edo laguntzaileei protesta zalapartatsua egitea, istilu edo zalaparta horretan ari direnak identifikatu ezin direnean.

j) Eskumeneko federazio organoen aginduzko arautegiko ordenak, instrukzioak, hitzarmenak ala betebeharrak ez betetzea, ez betetze hori, dagozkion zirkunstantziak direla medio, arau-hauste larria edo oso larria kontsideratzen denean.

2. Falta larriak, honako kopurutako isunekin zigortuko dira; senior mailan bada; 52 €tik 105 €ra bitartean,; 45 etik 50 era bitartean, gainontzeko mailetan; 15 etik 45€ era bitartean, gazte, kadete ta emakumezkoen mailetan eta kasuan kasu egoki diren aipatu kalte-ordainez gain, bestelako ondorioak dakartzate berekin falta larriek, hala nola, partidua galtzea eta, sei eta hutseko emaitzarekin, aurkaria irabazle bihurtzea, baldin

eta kanporaketan emaitza zabalagoa lortu ez balitz.

a) Jokalari bat hamaikakoan behar ez bezala sartzea, zigortuta edota arauzko baldintzak bete gabe egoteagatik.

b) Talde batek norgehiagoka batean puntualitate gutxi izatea edo hasiera atzeratzea, baldin eta partiduaren etena badakar.

c) Jokoaren arauen arabera, beharrezkoak diren baliabide teknikoei, futbol zelaiei eta euren baldintzei dagozkien xedapenak ez betetzea, baldin eta partiduaren etena badakarte, bai eta epaile edota taldeen aldageletako garbitasuna, osasungarritasuna, behar bezalako banaketa eta begiramenaren baldintzak, arduragabekeria edo zabartasunagatik ez betetzea.

d) Partiden hasiera ordua eta dataren berri, horretarako araututako epeetatik kanpo ematea edo zuzenean ez ematea eta aipatu hasiera ordu eta data horren berri emateko, zazpi eguneko epea dagoenean, jardunaldiaren ordua baino hirurogeita hamabi ordu lehenago ematea edota epea bi astekoa denean, zazpi egun lehenago egitea.

3. Jarraian aipatuko direnak ere falta larriak izango dira, eta honako isuna izango dute; lurraldeko senior mailan bada; 131,50 €tik 262,95€ era bitartean, Lurraldeko senior mailan bada; 65,75 €tik 131,50€ era bitartean, gainontzeko mailetan bada; 32,90 €tik 65,75€ era bitartean, gazte edo emakumezkoen mailan badaeta 16,30 €tik 32,90€ kadete mailan, kasuan kasu egoki diren aipatu kalte-ordainez gain, bestelako ondorioak dakartzate berekin falta larriek, hala nola, futbol zelaia ixteko ohartarazi edota partidu batetik hirura bitartean edo bi hilez ixteko agindu eta guzti ematea.

a) Oro har, ikusleek sortutako istiluak eta zelaira gauzak jaurtitzea, partiduak bide onetik jarraitzea, behin eta berriro edo modu larrian galarazten denean edota aldi baterako edo behin betiko etenda gelditzen denean edota partidura bildutakoen segurtasuna erasotzen denean.

b) Jokalari, entrenatzaile, ordezkari, epaile talde, taldeetako zuzendaritzetako buru eta kide eta bestelako kirol agintariei eta euren ondasunei, ikusleek egindako erasoak, partidua hasi aurretik, ondoren edo partidua jokatu bitartean bai eta kirol-esparru barruan zein kanpoan gertatzen badira ere.

c) Norgehiagoka hasi aurretik, ondoren eta bitartean, ordena publikoaren nahasmena ekiditeko, beharrezko diren prebentzio neurri guztiak ez hartzea eta egindako hutsegiteagatik, agintarien arduraren pean egoteari utzi gabe eta zigorra, dagokion agintari eskudunen esku utziz.

d) Epaileari edo laguntzaileei protesta zalapartatsua egitea, istilu edo zalaparta horretan ari direnak identifikatu ezin direnean.

4. Jarraian aipatuko direnak falta larriak izango dira, eta honako isuna izango dute; lurraldeko senior mailan 131,50 €tik 262,95€ era bitartean; 65,75 €tik 131,50€ era bitartean, gainontzeko mailetan bada; 40€ etik 66€ era bitartean, gazte, Kadete eta emakumezkoen mailan bada eta kasuan kasu egoki diren aipatu kalte-ordainez gain, bestelako ondorioak dakartzate berekin falta larriek, hala nola, partidua galtzea eta sei eta hutseko emaitzarekin, aurkaria irabazle bihurtzea, baldin eta kanporaketan, emaitza zabalagoa lortu ez balitz.

a) Partidu baten hasierara, araudian aurreikusitakoa baino jokalari gutxiagorekin agertzea.

b) Jokoaren arauen arabera, beharrezkoak diren baliabide teknikoei, futbol zelaiei eta euren baldintzei dagozkien xedapenak ez betetzea, baldin eta partiduaren etena badakarte, bai eta epaile edota taldeen aldageletako garbitasuna, osasungarritasuna, behar bezalako banaketa eta begiramenaren baldintzak, asmo txarrez ez betetzea.

c) Klubeko talde batek, arrazoirik gabe partidu batera ez agertzea edo uko egitea partidua jokatzeari.

d) Behin partidu bat jokatzen hasita, talde bat bertatik erretiratzea berau bukatzea galaraziz edota jarrera desegokia erakutsiz, partiduaren etena eragiten badu aipatu taldeak.

e) Jokalariek asmo txarrez, partidu bat jokatzen jarraitzeko lesio edo bestelako zailtasunen itxurak egitean, partiduaren bukaera edo etena eragiten badute.

f) Norgehiagoka batean ezohiko emaitza lortzeko asmoz, talde batek ohi baino maila baxuagoa duen hamaikakoa aurkeztea edo bestelako bitartekoren bat erabiltzea, aipatu helburua lortzeko.

g) Jokoaren etenaldi anormala, aulkiko edozein kidek ala klubarekin loturiko pertsonak eginikoa, talde aurkariaren gola sartzeko ageriko aukera saihesteko.

h) Sei partidu baino gehiagotara ez etortzea, partiduetan halabeharrez esku hartu behar dutenak; hau da, entrenatzailea, talde-ordezkaria ala pista-ordezkaria.

i) Dagokion federazio organoak ebatzitako agindu, akordio edo arauzko betebeharrak ez betetzea, ez betetze hori, bere izaeragatik edo kasuan-kasuko inguruabarrengatik, larritzat jotzen bada edo jakinaren gainean egonda edo behin eta berriro egin bada.

5. Jarraian aipatuko direnak falta oso larritzat joko dira, eta honako isunak izango dituzte; lurraldeko senior mailan bada; 131,50€tik 1.314,70€ era bitartean, gainontzeko mailetan; 66€tik 657€ era bitartean, gazte, kadete eta emakumezkoen mailan bada eta kasuan kasu egoki diren aipatu kalte-ordainez gain, Kirol instalazioak ixtearen inguruko ohartarazpena zilegi izanik eta lau partidutik denboraldi bat bitarteko epea hitzartu ahal izanik, dagozkion diru-laguntzei utzi gabe, ikusleen aldetik jokalari, entrenatzaile, arbitroen taldeko ordezkari, zuzendari eta gainerako kirol agintarien aurka jazotzen diren erosoak, partiduaren aurretik, bitartean ala ondoren eta kirol esparruaren barruan ala kanpoan, bereziki larriak izaten direnean, garrantzizko ala kirol orden egokiaren aurkako kalte materialak ala lesio pertsonalak eragiten dituztenean.

a) Jendaurreko gertaerak eta erasoak klub bisitariko jarraitzaile bermatuen aldetik eragiten direnean, eginiko hutsegiteekin loturiko zigorrak ezarriko zaizkio klub lokalaren erantzukizunari utzi gabe, partiduaren antolamenduaren titular bezala, zirkunstantzia horiek eskumeneko diziplinazko organoak ebatzi beharrekoak izanik.

b) Partiduak zelai neutralean jokatzen direnean, ikusleek eragindako balizko istiluek lehian dauden bi taldeei eragingo dizkiete zigorrak, edota bietako bati baino ez, baldin eta ziurtatzen bada talde bateko ala besteko jarraitzaileak aritu direla.

6. Artikulu honetako edozein ataletan azaltzen den jarrera, denboraldi berean bi aldiz errepikatuz gero, nahiz eta txapelketa desberdinetan izan, lehian aritu izandako azkeneko txapelketatik kanpo geratzeko zigorra ezarriko da eta segidan duen azpiko mailara jaitsiko da bi denboraldiz edota segidan duen hurrengo azpiko mailara, matematikoki jaisteko balego. Asmo oneko bitarteko edo hirugarrenei, kirol-kalte edo kalte ekonomikoak eragiten zaizkienean, zigor bera ezarri ahal izango da.

**95. ARTIKULUA Emaitzen Aurretiko Zehaztapena**

Klubetako buru edo zuzendaritzakideak partidu edo lehiaketa batean emaitza irregularrak lortzera zuzendutako akordio edo ekonomi pizgarrietan edozein eratan parte hartu dutelako erruduntzat jotzen badira, goian ohartarazitako zigorrez gain, sailkapenean puntuak kendu ahal izango zaizkie horretan nahasitako klubei, emaitza horiek besterentzako kalterik ekar ez dezaten.

Kanporaketa bidezko lehiaketa izanez gero, klub horiek lehiaketatik kanpo utziko dira.

Bi talde lehiakedeetako bat errudun ez bada, eta berarentzako edo errurik ez duien besterentzako kalteak sortzen badira, partidua baliogabetu eta errepikatzea erabakiko da.

## V. TITULUA

## ZIGOR JARDUNBIDEARI BURUZKOA

## I KAPITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

**96. ARTIKULUA Xedapen orokorrak**

1. Araudi honek erabakitako zigorrak idazpuru honetan araupetutako jardunbideei jarraituz horretarako egindako espediente bidez soilik ezar daitezke. Jardunbide horiek, beti ere, zigor-organoek arin eta eraginkortasuez jardun dezaten ahalbidetzeaz batera interesdunen entzunaldi, defentsa eta errekurtso eskubideak babestu behar dituzte.

2. Kirol disziplinan, espedienteak zuzenean ukitzen dituen pertsona edo erakundeez gain, hartutako erabakien ondorioei dagokienez aldeko zein kontrako bidezko eskubide edo interesak sortzen zaizkien pertsona guztiak ere hartuko dira interesduntzat.

3. Zigor-organoek, beren aginpideko auziak epaitzean, honako hau izango dute kontutan: ekintzen izaera, garrantzia eta ondorioak, erantzuleen kualitatea, eragindako kalteak (egotekotan) eta arrazoiturik aintzat hartzekotzat jotzen dituzten gainerako ingurabarrak.

**97. ARTIKULUA Jardunbidearen Faseak**

1. Kirol arloko zigor-jardunbideak hiru fase ditu:

a) Haisera.

b) Espedientea egitea.

c) Erabakia.

2. Jardunbideari zigor-organo aginpidetunak emango dio hasiera, bere kabuz, alde interesdunaren eskariz, arrazoitutako salaketaz edo erakunde edo instituzio aginpidedunaren agindeiaz.

3. Partiduak zein lehiaketak jokatzean edo haien ondorioz egindako faltei dagokienez, haien akta eta leudekeen eraskinetan oinarrituta emango zaio hasiera espedienteari,

aurreko atalean erabakitakoaren kalterik gabe.

4. Jardunbidea zigor-organo aginpidedunaren arioz bultzatuko da, urrats guztietan.

**98. ARTIKULUA Espedienteak bateratzea**

Kirol arloko zigor-organoek erabaki dezakete, haien artean dagoen antzekotasun edo analogia, subjektiboa zein objektiboa, arrazoizkoa eta nahikoa izanik espedienteak batera izapidetu eta erabakitzea egokitzat jotzen bada.

**99. ARTIKULUA Kautelazko neurriak**

1. Kirol arloko zigor-organoek, halaber, espedienteari hasiera ematean, erabakiaren eraginkortasuna babesteko edo konponezineko kalte edo galerarik sor ez dadin beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartzea erabakitzeko ahalmena dute.

Neurri horiek indarrean egongo dira espedientea izapidetzen den bitartean eta erabakia hartu arte, eta interesdunei jakinarazi behar zaizkie legokiokeen errekurtsoaren ondorioetarako.

2. Ezin har daiteke legeek babestuako eskubideak urratzen dituen kautelazko neurririk.

**100. ARTIKULUA Atzera Egitea**

1. Interesdunek beren eskabideetan atzera egin dezakete jardunbidearen edozein fasetan. hala ere, atzera egiteak aurkeztu duenari dagokionez solik izango ditu ondorioak.

2. Atzera egitea zigor-organo aginpidedunaren aurrean aurkeztu behar da, bai idatziz, bai ahoz eta bertaratzearen bidez. Azken kasu horretan, dagokion eginbidea eman eta izenpetu behar da.

3. Atzera egiteak zigor-espedienteari amaiera eman eta artxibatzea ekarriko du, horrelako eskabiderik aurkeztu duen beste interesdunik ez badago edo zigor-organo aginpidedunak, guztiarekin ere, interes orokorreko arrazioak direla eta jardunbideari jarraipena ematea erabakitzen ez badu.

**101. ARTIKULUA Jarduerak**

Ustezko arau-hausteren baten berri izatean, zigor-organoak honakoa egin dezake:

a) Arrazoiturik, jarduketak artxibatzea erabaki.

b) Dagokion zigorra ezarri jardunbide ohizkoaren bitartea.

c) Berezi jardunbidearen bitartez espedienteari hasiera ematea erabaki eta agindu-agiria ematea, hiru laneguneko epe luzaezinean eta egindako arau-haustearen astuntasuna dela eta hori egokitzat jotzen bada.

**102. ARTIKULUA Erabakia**

Zigor-organo aginpideduna araudiak ezarritako epeen barruan erabakia ematera derrigortuta dago. Beraz, erabakia ezin daiteke isilpekoa izan. Hori ez egiteak erantzunkizuna ekarriko dio dagokion organoari.

**103. ARTIKULUA Erabaki Epeak**

Partiduak zein lehiaketak jokatzean edo haien ondorioz egindako faltak direla eta, haien epaiketa eta zigorrak lehiaketen garapen egokia ukitzen badute, organo aginpidedunak, interesdunei entzunaldia eta goragoko organora jotzeko eskubidea bermatzearen katerik gabe, behar ebazpena ukitutako partidua jokatu baino lehen ematen saiatuko dira. Hartutako ebazpena, gutxienez erabaki jasotzen duen zatia eta jar daitekeen errekurtsoa, berehalakoan jakinaraziko dira.

**104. ARTIKULUA Epeen luzapena**

Espediente bat egitean inguruabar bereziak biltzen badira, azken auzialdian erabakitzeko aginpidea duten organoek, beren kabuz edo espedientea egiten ari zaionaren eskariz, ohartarazitako epeak luzatzea erabaki dezakete, gehien jota epe horien erdia gainditu gabe.

**105. ARTIKULUA arrazoimena**

